


2016ko martxoaren 14 eta 15a, **Bilbo**
Bilbao, 14 y 15 de marzo de 2016

Bizkaia Aretoa UPV/EHU
Sala Baroja. Avenida Abandoibarra, 3



**GARAPENERAKO
ESTRATEGIA
POSITIBOEN
XI. JARDUNALDIAK**

EREDU NAGUSIARI
AURRE EGITEA
SEXU ETA GENERO
DIBERTSITATEAREN BIDEZ

**XI JORNADAS
ESTRATEGIAS
POSITIVAS
DE DESARROLLO**

RESISTENCIAS
AL MODELO DOMINANTE
DESDE LA DIVERSIDAD
SEXUAL Y DE GÉNERO

JARDUNALDIEN EGITARAUA

MARTXOAREN 14A, ASTELEHENA

19:00

Aurkezpen instituzionala

ITZIAR URTASUN JIMENO. Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta Jaietako zinegotzia.

PAUL ORTEGA ETCHEVERRY. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria.

Hasierako hitzaldia: gorputzen eta desioen mapak egiten

MARIA TERESA BLANDÓN. La Corriente Programa Feminista, Nikaragua.

MARTXOAREN 15A, ASTEARTEA

9:45

Izena ematea

10:00 - 12:00

Edo denok gozatuko dugu edo inork ere ez...garapen ez normatiboaren alde

ANTONI AGUILÓ. Filosofoa, politikaria eta Coimbrako (Portugal) Unibertsitateko Gizarte Ikasketen Zentroko irakaslea. Balear Uhartetako Unibertsitateko aholkularia.

SALETE DE F. PIRES DE MORAES. Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra (MST), Brasil.

12:00 - 12:30

Atsedena-kafea

12:30 - 14:00

Desioen konplizitatea: erronka partekatua

MARÍA VIADERO, Mugarik Gabe eta **SILVIA TOSTADO,** Fundación Triángulo.

14:00 - 15:30

Atsedena-bazkaria

15:30 - 17:00

Desioen konplizitatea: erronka partekatua

ALDIBEREKO TAILERRAK:

1. tailerra

DANIEL AHMED SAID, Nasij eta **HANEEN MAIKEY,** alQaws.

2. tailerra

ROSA MARÍA POSA, Venir al Sur.

17:15 - 18:15

Amaiera eta ondorioak

Dinamizatzailea **NAHIA TALDEA:** gerora begirako erronkak eta desafioak.

AURKEZPENA

Jardunaldien 2016ko edizio honen ardatz nagusiak gizartea eraldatzeko heziketan eta garapenerako lankidetzan genero-ikuspegia eta sexu-dibertsitatea sartzeari buruzko hausnarketak eta ekintzak izango dira; betiere, genero-ikuspegiaren interpretazioa zabaltzeko, sexua-generoa sistemaren binarismoa gainditzeko eta eredu nagusiaren aurreko alternatiba izateko. Giza Eskubideen ikuspuntutik lan egiteko gizarte kohesionatuagoa eta integratuagoa osatzeko, gure ustez, ezinbestekoa da genero-ikuspegia eta sexu-dibertsitatea eranstea. Ikuspegi hori, gure gizarteetan dauden sexualitateak eta genero-identitateak ezagutzeko eta ulertzeko tresna analitiko erabilgarria ez ezik, aldaketarako proposamen politikoa eta errealitateen aldatzailea ere badelakoan gaude.

Jardunaldiak hiru ataletan daude antolatuta. Arlo akademikoko azterketa-txostenak, gizarte-mugimendu eta elkarten gogoetak eta praktikak tartekatuko dira, eragingarriak izateko aurkitu dituzten estrategiak, bidean izan dituzten zailtasunak eta prozesu horietan identifikatu dituzten erronka berriak aztertze aldera.

1. ATALA

Gorputzen eta desioen mapak egiten

Gaiari buruz hausnartzeko giltzarriak jartzea, honakoak aztertze-ko: mendebaldeko sexualitatea, esparru heteronormatibo, esentzialista eta neoliberalaren barruan, gure desioen eta gure gorputzen kontrol sozialerako sistema moduan; sexualitatea arautzen duen eta kulturen eta pertsonen aniztasuna ukatzen, baztertzen eta ezkututzen duen markoaren globalizazioa; sexu/generoaren eta desioen sistema oso normatiboa eratzea.

2. ATALA

Edo denok gozatuko dugu ala inork ere ez... garapen ez normatiboaren alde

Sexu eta genero-dibertsitatea garapenean eta lankidetzan sartzeari buruz eztabaidatuko dugu. Zalantzan jarriko da, ikuspegi kritikoarekin, nagusi den eredu neoliberalarekin lotutako heteronormatibitatearen eredu, sexu eta genero-dibertsitatera hurbiltzeko beste aukera batzuk agertuta.

3. ATALA

Desioen konplizitatea: erronka partekatuak

Zenbait esperientzia ezagutuko ditugu sexu eta genero-dibertsitatea agerira ekartzeko; ikuspuntu hori eguneroko lanean zelan sartzen den ikusiko dugu, baita horretarako zer ikasi behar dugun eta zeintzuk diren trabak eta erronkak ere.

JARDUNALDIEN HELBURUAK

- 1.** Garapenerako lankidetzan genero-ikuspegia eta sexu-dibertsitatea eredu nagusiaren alternatiba moduan sartu beharri buruzko hausnarketa egitea.
- 2.** Sexua-generoa paradigma gainditzea, identitate eta aukera sexualak eraikitzearen irakurketa konplexu bihurtzea eta binarismoaren eta heteronormatibitatearen ondorioak dimentsionatzea.
- 3.** Agerian jartzea eguneroko lanean genero-ikuspegia eta sexu-dibertsitatea sartu duten gizarte-mugimenduen eta elkar-teen esperientziak eta ikuspuntu horri ekin izanak zer esan nahi izan duen erakunderako eta bertan lanean dihardutenentzat; agerian jartzea baita zailtasunak eta ahalmenak ere.
- 4.** Nazioarteko lankidetzaren arlo honetako erronkei buruz eztabaidatzea.

PONENTZIEN AURKIBIDEA

ANIZTASUNERAKO ESKUBIDEA DEFENDATZEN DUTEN GORPUTZAK

Maria Teresa Blandón. La Corriente Programa Feminista, Nikaragua.

6

SUBERTSIO HETERONORMATIBOA: LGTBEN ERRONKAK HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIA BATETIK ABIATUTA

Antoni Aguiló. Filosofoa, politikaria eta Coimbrako (Portugal) Unibertsitateko Gizarte Ikasketen Zentroko irakaslea. Balear Uharteetako Unibertsitateko aholkularia.

15

EMAKUMEEN PARTAIDETZA ETA SEXU-ANIZTASUNA MST-N

Manuela Martins da Costa Aquino. Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra (MST), Brasil.

28

SEXU- ETA GENERO- IKUSPEGIA MUGARIK GABE ERAKUNDEAN

María Viadero Acha, Mugarik Gabe.

34

FUNDACIÓN TRIÁNGULO

Silvia Tostado, Fundación Triángulo.

43

NASIJ ISLAMOFIARIAREN AURKA ETA ISLAM INKLUSIBO ETA QUEER BATEN ALDE

Daniel Ahmed Said, Nasij.

54

“VENIR AL SUR/ ZATOZTE HEGOALDERA”, LATINOAMERIKAKO ETA KARIBEKO LESBITRANSINTER TOPAKETA FEMINISTAK

Rosa María Posa Guinea, Venir al Sur.

61

**ANIZTASUNERAKO
ESKUBIDEA
DEFENDATZEN
DUTEN
GORPUTZAK**

María Teresa Blandón Gadea

La Corriente Programa Feminista, Nikaragua
lacorrientenicaragua.org

Nor garen...

“Programa Feminista La Corriente” 21 urteko ibilbidea duen erakundea da. Hasieratik, Erdialdeko Amerikako proiektzioa izan du, baina azken hamarkadan lan handiena Nikaraguan egin du.

Beste ezeren gainetik, mugimendu feministan sartuta gauden kolektibo bat gara eta mugimendu-nortasun hori dela-eta, guk garatzen ditugun ekimenek –baita lankidetzaren laguntzarekin garatzen diren proiektu espezifikoak ere– emakumeen eta gizonen asaldurak sustatzea hartzen dute oinarritzat eta asmozat, gorputz generizatu gisa eta genero-tiraniaren mendeko gisa dituzten esperientzietatik abiatuta.

Gerraosteko garaian sortutako erakunde feminista guztien moduan, diktadurak amaitzeko eta gizarte justuagoak eraikitzeko nahiak bultzatuta, urte askotan bildu ginen botere maskulinoaren nagusitasunaren ondorioz emakumeek –edo emakume mota batek esan dezakegu orain– pairatutako zapalketa guztiak salatzeke. Ikuspegi horrekin, lehen etapan, esleitutako nortasunarekin lotura zuzena zuten diskriminazio-esperientziak zituzten emakumeen ekintza kolektiboa sustatzera bideratu genituen gure ahaleginak.

Generoaren eta klasearen arteko elkarketa kontuan izan dugu beti gure agendetan, patriarkatuaren eta kapitalismoaren arteko aliantzaren ebidentzia gisa, baita misoginiaren eta arauzko heterosexualitateak zalantzan jartzen dituen praktika sexualekiko arbuioaren arteko lotura korapilatsuaren ebidentzia gisa ere.

Sexu- eta genero-aniztasunaren inguruko ikuspegiaren premia

Emakumeen eskubideak aitortzeko bidean ia aurrerapenik ez zegoelako kezkatuta, eta gure eskualdean izandako fundamentalismo erlijioso eta politikoen aurrean, azken hamarkadan planteatu genuen sexu- eta ugalketa-eskubideak gure agenda politikoaren lehentasun bihurtzea, baita gazteekin lan egitea ere, botere- eta indarkeria-guneetako mendetasunetik eta maskulinitateetik eraikitako feminitatearen aginduak modu berezian pairatzen dituzten gorputzak diren aldetik.

Lehen gogoeta-esperientzien ondoren, ohartu ginen beharrezkoa zela sexualitateari buruzko eztabaida feministak emakume eta gizon gazteengana hurbiltzea, beren gorputzen gainean obskurantismo erlijiosoaren mende askotako zapalkuntza jasan baitute. Konturatu ginen berdintasunaren bilaketa feminitate/maskulinitate estu, estereotipatu eta zapaltzaile baten ezaugarriak zehazten dituzten aginduen aurka agertzen diren gorputzekin gauza daitekeela soilik.

Jabetu ginen eratzen eta errepikatzen ari ziren feminitate/maskulinitate ereduak antagoniko, eta aldi berean, osagarri gisa aurkeztzen zirela, batez ere sexualitatearen eremuan. Hau da,

emakume eta gizon gazteek “funtsean desberdinak” direla aitortzen dute, baina aldi berean, pertsona mota desberdinen arteko osagarritasun moduko baten alde egiten dute.

Konturatu ginen gizonek gizon izateagatik baliatzen dituzten pribilegio ilegitimoak neska gazteek nozitzen eta salatzen dituztela, baina horrek ez duela nahitaez eragiten hainbat arlotan (estetikan, dimentsio erotikoa edo amatasunaren miresmenean) adierazten diren feminitatearen zenbait agindu zalantzan jartzea.

Kode oso sexista eta diskriminatzaileen arabera idatzitako feminitate/maskulinitate eredu tradizional hau desegiteko beharra ikusita, gizon gazteekin lan egitearen garrantziaz jabetu ginen, hain zuzen ere, desadostasuneko, aurka egiteko eta aipatutako agindu horiek urratzeko jarrerak hurbildu ahal izateko.

Jakina, poliki-poliki, arauzko nortasunak zalantzan jartzen zituzten askotariko esperientziak adierazten zituzten gorputzak mintzatu ziren, ez soilik feminitate/maskulinitateari dagokionez, baizik eta baita ere debekatutzat hartzen diren beste gorputz batzuekiko erakargarritasunaren eremuan edo esleitutako nortasunaren eta gorputzen bizi-esperientziaren arteko disonantziaren eremuan: gizon femeninoak, emakume maskulinoak eta intentsitate-maila desberdineko genero-ezaugarriak dituzten gizon eta emakumeak (beste errealitate batzuen artean).

Gorputz gazte horiek izan ziren beren esperientziatik genero-nortasunen sare konplexuan eta sare horrek gizarte-dinamika zabalagoetan duen eraginean sakontzen jarraitzeko erronka bota zigutenak. Ordutik aurrera, La Corriente programak garatzen duen ekimen bakoitzak honelako gizon eta emakume gazteen parte-hartzea ziurtatzen du: hiri- eta landa-eremukoak, mestizoak, indigenak, afroondorengoak, pobreak eta klase ertainetakoak, lesbianak, bisexuak, gayak eta transexualak (lehen unean behintzat, horrela definitzen direnak).

Hainbat bidetatik (prestakuntza-prozesuak, topaketa nazionalak, azterlan partizipatiboak, sentsibilizazio-kanpaina publikoak, kabaret-antzerkia, irrati-programak eta sare sozialen erabilera) sexu- eta ugalketa-eskubideen inguruko gogoeta sortzen lagundu dugu, betiere genero-binarismoaren eta haren berezkoak diren hierarkien aurkako kritikatik abiatuta.

Gure lana pertsonen bizi-esperientzien berreskurapenetik abiatzen da, hain zuzen ere, men-debaldeko kulturaren –historiaren bitartez gorputzen ikuspegi esentzialista, homogeneizatzalea eta hierarkizatua ezarri digunaren– ikuspuntu feminista kritiko batekin.

Horrela, gure bizitzetan eta arlo pertsonala politikoa dela dioen feminismoaren premisa sortzailea onartu duten hainbat gazteren bizitzetan pentsaezinak ziren aldaketak eragin dituen esperientzian murgildu ginen. Ikuspegi horrekin, Estatuaren babes eskatu beharrean imaginario sozialetan aldaketak bultzatzen jarri dugu arreta, genero-aginduak desegituratzea eta izateko eta harremanetarako modu berriak ahalbidetzeko.

Gure zeregina testuinguru nahiko kontserbadorean garatu badugu ere, gure buruak **ez autozentsuratzeko** erronka onartu dugu; izan ere, gizartean tabu diren gaiak jorratzen ditugu,

fundamentalisten jainkoa kritikatzan dugu, ukatuak eta jazarriak diren desirak aitortzen ditugu, heterosexualitatearen eta amatasunaren gezurrak agerian uzten ditugu, gure amodio-ibilbide eskas eta biziak aztertzen ditugu eta generoarekiko ditugun eguneroko leialtasun-gabezia jabetzen gara.

Honako hauek dira garatzen ditugun gogoeta-gaietako batzuk: gabezia erotikoa eta afektiboak, aitatasunaren demagogia, moraltasunez jantzitako misoginia edo desira eta amodio-sentimendua indarkeria gisa; gai horiek oro har hartuta, genero-nortasunen egiazkotasuna zalan-tzan jartzera garamatzate, urratze-jarrera sustatuz.

Hainbat eskubide berreskuratzeko gogor lan egin dugu, esaterako, norberaren gorputzarekin gozatzeko eskubidea, masturbatzekoa, fantasia erotikoa eta orgasmoak izatekoa, ezkongabetasunerako eskubidea, sexu bereko pertsonekin probatzekoa, amatasun desiratuaren eta erririk gabeko abortuaren eskubideak edo gozamina dimentsio emantzipatzaile sakon gisa bizitzeko eskubidea. Sexualitatea eskubide gisa ikusteak gorputzak plazerraren eta askatasunaren gune direnaren uste osoan du jatorria, eta horrek autonomiaren eta indarkeriaren aurkako borrokarako gaitzen gaitu.

Sexu- eta genero-nortasunen gunea osatzen duten gai hauek jorrazteko, uste dugu ezinbestekoa dela kultura laiko bat sustatzea, hazten ari diren fundamentalismo erlijiosoaren aurkako, dakigunez, gure gorputzak esperimentatzeko, ikasteko, plazerreko eta askatasuneko gune gisa bizi ahal izateko oztupoa besterik ez baitira.

Arlo publikoan paradigma berrietatik esku hartzeko, ezinbestean gorputzari dagozkion gogoetak sustatu behar direnaren uste osoa berretsi dugu; izan ere, gorputzean sortzen da gizarte-arauei eta errepikatutako eta legitimatutako jardun autoritarioei aurre egiteko gaitasuna.

Sexu- eta genero-aniztasunaren inguruan dugun ikuspegia

Sexuak, generoak eta sexualitateak kulturaren, zientziaren, ekonomiaren eta politikaren eragina jasotzen duten eraikin historikoak dira eta generoa, arraza, etnia eta klasea biltzen dituzten botere-sistemez elikatzen dira.

Genero-nortasunek eta mendebaldeko kulturak eraikitako beste sailkapen batzuek pertsonen subjektibotasunean eragiten dute, pertsonak munduan egoteko modu jakin batzuk onartzera behartuz, baina horretaz gain, hainbat botere-hierarkia onartzea ahalbidetzen dute, gorputzak eta sexu-desira eta -praktikak legitimo gisa edo mespretxagarri gisa sailkatuz.

Mendebaldeko gizarteek, erlijio kristauaren bitartez, esanahi zapaltzaileak eraiki dituzte gure gorputzen gainean, borondate jainkotiar apelaezin batek edo kasurik onenean, natura-determinazio batek (hori ere apelaezina) eragindako balizko esentzialismoari lotuz; hortaz, gizakien existentzia behingoz eta betirako aurredefinituta aurkezten da. Genero-binarismoa ulertzeko

modu zorrotz eta desegoki horren baitan kokatzen dira, besteak beste, norberaren gorputza-
ren pertzepzioa, desiraren orientazioa, sexu-praktikak, ugalketa-esperientzia, zaintzaren etika
eta botere-nozioak.

Genero-sailkapenaren arabera desberdinak diren pentsatzeko, sentitzeko eta jarduteko modu
horiek ez dira kaltegabeak; izan ere, mendebaldeko gizarteek pribilegiatzen duten arketipoa
adierazten duten gizon eta emakumeei (erlijio patriarkalen defendatzaileak, heterosexuak,
ezkontza heterosexualaren instituzioa errespetatzen dutenak, ugaltzen direnak) mesede egi-
ten dieten botere-hierarkiak egituratzeko balio dute. Beste muturrean kokatzen dira gene-
ro-estereotipoei erantzuten ez dieten gorputzak, gorputz lesbikoak eta gayak, sexua diruaren
truke eskaintzen duten gorputzak, beste gorputzekiko desira erakusten ez duten gorputzak,
abortatzen duten gorputzak.

Sailkapen hauek, bai sexu-arauak ezartzeko eta zaintzeko ardura duen aldearenak bai arau
horiek iraultzen dituztenenak, ez dute modu bakar batean jarduten; izan ere, sailkapen horiek
gurutzatu eta osatu egiten dira klasearen, etniaren eta jaiotako lekuaren arabera; hortaz, klase
ertaineko gay batek ez du pobrezia baldintzetan bizi den gay baten diskriminazio-esperientzia
bera pairatuko, definizio horrek biltzen duen guztiarekin.

Ikuspegi horrekin, helburu komuna, hau da, gure gorputzak diziplinatzea eta kolonizazio kul-
tural, ekonomiko, politiko eta sexualeko sistema berri eta zaharren menpe jartzea helburutzat
duten zapalkuntza-sistema anitz daudela ikusten lagunduko duen pentsamendu kritiko bat
eraikitze bidean aurrera egiteko beharra ikusten dugu.

Aniztasunaren defentsa Nikaraguako testuinguruan

Nikaraguako gizarteak dituen arazo endemiko askok bertako kultura autoritarioan dute jato-
rria, egoteko eta batera egoteko modu desberdinak aitortzeko gaitasun mugatua duen kultura
hain zuzen ere. Maiz indarkeria dakarren intolerantziaren adierazpenetako bat sexu- eta ge-
nero-aniztasunari dagokiona da.

Tradizio judeokristauak gure gizartean duen garrantzia da generoaren ordena bitarra desegi-
turatzeko oztoporik nagusia; jende askok (guk onartu nahi duguna baino gehiagok) erabiltzen
du oraindik ere Biblia kristaua femenino/maskulino arloak eremu guztietan moldatzeko, baita
sexualitatearen eremuan ere.

Pertsuasioaren, ereduaren, dotrinamenduaren eta hertsaduraren bitartez naturalizazio/per-
bertsioko, inklusio/esklusioko eta onarpen/errefusako sistemak moldatu dira, honelakoak
erakusten dizkigun genero-pedagogia sofistikatu bat eratuz:

- Izateko eta munduan egoteko modu bakarrak daude; esleitutako nortasunean ahalik eta
hobekien moldatzen –edo moldatzen garenaren itxura ematen– erakusten digute.

- Sexuak funtsezko desberdintasunak eragiten ditu gizakietan, bizitzako gainerako bat-etor- tzeen garrantzia ezabatuz.
- Sexu/genero batek beste batzuek baino botere eta aukera gehiago ditu eskura: gizona iza- tea emakumea izatea baino hobea da.
- Desira onak eta txarrak daude. Norberaren desira ezabatzen eta edozein matxinada-arras- to desagerrarazten erakusten digute; horrek sari eta zigorren multzo baten bitartez zehaz- ten den diziplina-maila handia eskatzen du.
- Nortasun bitarren naturaltasuna eta ezinbestekotasuna zalantzan jartzen duten adierazpen guztiak –norberarenak edo besterenak– baztertzea eta zigortzea. Natural eta jainkotiar gisa aurkezten diren sexu- eta genero-ezaugarriak ontzat hartu behar ditugu absurduraino.
- Gorputz “disidenteak” maltzurkeriaren, perbertsioaren eta bekatuaren aldean, edo bestela, anormaltasunaren eta gaixotasunaren aldean sailkatzea, gorputzen normaltasunaren iru- di faltsua babesteko.

Azken emaitza honako hau da: gorputzak sexu-desberdintasunari esleitzen zaizkion esa- nahien arabera sailkatzea eta gorputzen, desiren, portaeren, adierazpenen, jantzien, ahots-to- nuen, jardueren eta giza existentziaren aniztasuna (bere bizi-dimentsioetan) ukatzea.

Gure kulturetan ebidentzia askoren bidez egiazta daiteke Estatu konfesional bat dugula orain- dik ere, eta Estatu horrek moral judeokristauaren kodeak nortasunari, sexu- eta ugalketa-osa- sunari eta familia-eskubideari buruzko legeen esparrura eramaten ditu. Nikaraguaren kasuan, gobernuko alderdiak sustatutako Konstituzioaren erreforma berriek balore judeokristauak biltzen dituzte Estatua gidatzen duten printzipioetan, Estatuak erlijio ofizialik ez duela dioen baieztapenarekin erabat kontraesanean.

Giro politiko-kultural heterosexista, matxista eta misogino hau da genero-aginduak iraultzen dituzten pertsona guztien eskubideak erabat urratzen dituzten eguneroko praktika instituzio- nalak normalizatzeko haztegia.

Azken urteetan hainbat erakundek eginiko azterlanetan lesbianek, gayek eta transgeneroek pairatzen dituzten diskriminazio modu askotarikoak azaltzen dituzte; diskriminazioan gene- roa eta sexu-orientazioa batzen dira, baina baita klasea ere; izan ere, pobrezia-baldintzetan bizi direnek intentsitate handiagoz bizitzen dute diskriminazioa. Normalean pobrezia-egoeran bizi diren landa-eremuko lesbianek eta transgeneroek, indigenek eta afroondorengoek oztopo handiagoei aurre egin behar diete diskriminazioari eta indarkeriari aurka egitea ahalbidetzen dieten partaidetza-prozesuei ekiteko.

Estatuak modu esplizitu nahiz inplizituan ukatzen dizkie eskubideak pertsona horiei, politika gehienek ez baititute LGTBI pertsonak daudenik ere aipatzen, eta beste politika batzuetan argi ikusten da joera diskriminatzailea eta baztertzaila dutela, esaterako, 2013an onartu zen Fa- milia Kodearen kasuan.

LGTBI pertsonak ikastetxe publikoetan bizitzen dituzten bazterketa- eta indarkeria-maila handien ondorioz maiz ikasketak utzi behar izaten dituzte; osasun-langileen eskutik jasotzen duten tratu txarra zerbitzu publikoak baliatzeko oztopoa izaten da, gaixotasunekiko kalteberatasuna indartuz; polizia-abusuak eta justizia baliatzeko aukerarik ez izatea ere diskriminazio-giro orokorrean biltzen dira.

2008-2009 urteetan Batzar Nagusiak sexu bereko pertsonen arteko sexu-harremanak sodomia-delitu gisa hartzen dituen Zigor Kodearen artikulua indargabetu zuen; bestalde, Aniztasun Sexualerako Prokuradoretza Berezia ezarri zen eta osasun-zerbitzu publikoetan sexu-orientazioagatiko diskriminazioa debekatzen duen ministro-dekretua atera zen, baina hala ere, Estatuaren logikak arau heterosexualekin bat ez datozen pertsonen eskubideen aurka daude oraindik ere.

Generoari eta sexualitateari dagozkien botere-hierarkiak eraldatzeko pista batzuk

Ez da erraza gure bizitza eta harremanetan aztarna sakonak utzi dituzten obskurantismo-mendeak eraldatzea. Sexu- eta genero-arloko aginduak gorabehera, batzuetan beren gogoz bestera sexuaren arloan urratzaileak diren pertsonak, harreman subjektiboen, afektiboen, materialen eta bizirautekoen egituretan parte hartzen dute, giza existentziaren bizi-zentzuan, eta egitura horiek zaildu egiten dute bestearekiko “desberdintasunean” berresteko ahalegina, kontuan hartuz gainera, besteak, baztertzeko asmoarekin, mendeko gisa izendatzen duela “desberdina”.

Gure esperientzian sexuarekin, generoarekin eta sexu-orientazioarekin lotutako diskriminazio-era guztien kritika bideratzen dugu eta sexualitatea pertsonen, kolektiboen eta gizartearen garapen osoari eskaintzen dion giza esperientzien aniztasunaren adierazpen gisa ulertzea sustatzen dugu. Ildo horretan, La Corriente programak azken hamarkadan sustatutako jarduerak guztiek lesbianen, homosexualen, bisexualen eta emakume transgeneroen inklusioa ziurtatzen dute, diskurtso- nahiz gorputz-mailan.

Beste erakunde feminista eta lesbikoekin batera sentsibilizazio-kanpainak garatu ditugu lesbianen, homosexualen eta transgeneroen eskubideen inguruan; lesbianen eta emakume transgeneroen elkarrekin aliantzak egin ditugu haiei ikuspena emateko jarduerak gauzatu ahal izateko, esaterako, jakinarazpen-materialak eta prestakuntza-ekintzak lantzea.

Ikuspegi metodologikoa sexualitate hegemonikoko eredia kritikatzeko duen begirada feministatik abiatzen da, eta aldarrikatzen du soilik askatasuna, berdintasuna eta aniztasuna errespetatzen dituzten testuinguru soziokulturaletan, politikoetan eta instituzionaletan adieraz daitezkeen herritartasun-dimentsioa dela gorputza. Zalantzan jartzen ditugu genero-binarismoa, ezarritako heterosexualitatea, eskubideen ukapena eta kultura heteropatriarkalak ezarritako

aginduetatik urruntzen diren pertsonen aurka arlo publikoan nahi pribatuan gauzatzen diren indarkeriak.

Ahalegin kolektibo honi esker aurrera egin dugu narratiba berriak eraikitze bidean, hain zuzen ere, honako hauek egitea ahalbidetzen dizkiguten narratibak:

- Obskurantismo erlijiosoari aurre egitea: Bibliak eta hierarkia erlijiosoek erreferentzia sakratu gisa (beraz, sexualitatearen arloan, eztabaidaezin gisa) duten autoritatea murriztearen garrantzia.
- Genero-nortasunak zalantzan jartzea aurreiritziak sorrarazten dituen guztian.
- Neska eta mutil gazteek gorputza, sentimenduak eta harremanak bizitzeko modu berriak –ezarritako nortasunekiko atxikimendu txikiagoa dutenak– adieraztea lortzea.
- Emakume biologikoen eta transgeneroen arteko elkarbizitza normalizatzea, feminitatearen eta maskulinitatearen esentzialismoa zalantzan jarriz.
- Gozatzeko ahalmena ikertzeko eta indartzeko eskubidea legitimatzea, plazerraren lurralde sinboliko eta testualak handituz: lesbianismoaren eta homosexualitatearen normaltasuna berreskuratzea, esperientzia erotikoen aniztasunaren dimentsio gisa.
- Maitasunari buruzko ideiei zentzu berri bat ematea, maitasuna distortsionatzen eta esperientzia sexista bihurtzen duten kode sexistak zalantzan jarriz.
- Sexualitatea amatasunaren bitartez goresten dela zalantzan jartzea, emakumeak zapaltzeko bide delako.
- Genero-indarkeria prebenitzeko modu gisa onartzea sexu-askatasuna.
- Gorputzen askatasunaren eta aniztasunak ospatzearen aldarrikapenarekin zuzenean lotzen den kontzientzia laikoa indartzea.

Ikaskuntza garrantzitsuak

Ikaskuntza garrantzitsuaren artean, gorputzen eta sexualitatearen inguruko paradigma berriak eraikitze egin duten ekarpenetatik, honako hauek nabarmendu dira:

1. Imajinario sozialetan misoginiak eta heterosexismoak errotze sakona dutela kontuan hartuta, prestakuntzako eta partaidetzako prozesuak jarraitutasunez garatzearen garrantzia, betiere eraso sexistek, matxistek, homofobikoek eta transfobikoek eragiten duten kalteaz jabetuz.

2. Fundamentalismo erlijiosoak zalantzan jarriko dituen pentsamendu laikoaren eraikuntzan ekarpenak egitea, haiek baitira emakumeen eskubideak eta sexu-disidentziak onartzeko oztopo nagusietako batzuk.
3. Feminismoak –teoria eta ekintza politiko gisa– sexu-aniztasunaren mugimenduak deitutakoekin loturak garatzeko beharra, genero-binarismoak eta arauzko heterosexualitateak planteatzen dituen muga estuei aurre egiteko. Bi mugimenduetan dauden bateratasun-puntuez jabetzea, betiere, bizipen propioen nahiz imajinario kolektiboen eta eguneroko jardunen eraldaketan aurrerapenak lortzeko.
4. Eskubideek imajinario sozialak irudikatu behar dituzte, eta horretarako derrigorrezkoa da kontzienteagoak eta askeagoak egingo gaituen pentsamendu laiko bat eraikitzea.
5. Estatuari kalitatezko zerbitzu publikoak eskatzen jarraitzen dugu, baina gure gorputzen eta haien harreman-moduen eremuan sartzea onartu gabe, eta betiere, eraldaketarako aukerak Estatuaren esku uzteko tranpan erori gabe.
6. Plazerra eta gozamina sustatzea, gure eraldatzeko proposamenak indartzen dituzten dimentsio emantzipatzaile diren aldetik.

Laburbilduz, esan nahi dut ahalegin hauetan parte hartzen duten pertsonen eta kolektiboen bizitzetan gertatutako aldaketak nabarmenak direla; esaterako, norbera positiboan onartzeko ekintza pertsonal eta intimoa, gu tratatzeko erabilitako gorroto/mespretxuko hizkuntza baztertuz, edo familiari, komunitateari eta Estuari eskubideak eskatzeko ekintza publikoa, baita Jainkoaren izenean infernuarekin zigortzen gaituztenak arbuiatzea ere.

Mila esker zuen arretagatik.

SUBERTSIO HETERONORMATIBOA: LGTBEN ERRONKAK HEGOALDEKO EPISTEMOLOGIA BATETIK ABIATUTA

Antoni Aguiló

Coimbrako Unibertsitatea

www.ces.uc.pt

Giza eta Gizarte Zientzietako doktorea, Coimbrako Centro de Estudos Sociais de la Universidade erakundearen "Kolonialismo ondokoak eta herritartasun globala" doktorego-programaren irakaslea eta erakunde horretako Demokraziari, Herritartasunari eta Eskubideari buruzko Ikasketa Gunearen ikertzailea. Aguiló jaunaren ikerketa-esparru nagusiak hegoaldeko epistemologiak, partaidetza politikoaren prozesuak, demokrazia erradikalaren eta hegemoniaren aurkako demokraziaren aldeko teoriak eta haserretuen mugimenduak (bereziki M-15 mugimendua) dira. Europako Ikerketa Kontseiluaren "ALICE - Ispilu araroak, ustekabeko ikasbideak: munduko esperientziak partekatzeko modu berri bat definituz Europarako" izeneko proiektuaren demokrazia demokratizatzea gai-arloaren koordinatzailekidea da (2011-2016).

Lan hau Fundação para a Ciência e a Tecnologia (FCT) Fundazioaren finantza-laguntzari esker egin ahal izan da, doktoregoko eta doktorego-ondoko 2014rako ikerketa-bekak esleitzeko egin duen lehiaketa publiko bidez; fundazio horrek Portugalgo Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren funtsen eta Europako Gizarte Funtsaren bitartez partekatutako aurrekontu bat dauka. Era berean, “ALICE - Strange Mirrors, Unsuspected Lessons: Leading Europe to a new way of sharing the world experiences” proiektuaren esparruan egindako gogoeten ondorio ere bada. Proiektu hori Boaventura de Sousa Santosek koordinatu zuen Coimbrako Centro de Estudos Sociais de la Universidade erakundean. Proiektuak funtsak jasotzen ditu Europako Ikerketa Kontseilutik, Europar Batasunaren zazpigarren Esparru Programaren bitartez (FP/2007-2013) / ERC Grant Agreement 269807. zenbakia).

Esker on berezia adierazi nahi diet Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari, Bilboko Udalari eta Eusko Jaurlaritzari “Eredu nagusiari aurre egitea sexu- eta genero-dibertsitatearen bidez” izeneko Garapenerako Estrategia Positiboen XI. Jardunaldietan parte hartzera gonbidatzeagatik. Eskerrak eman nahi dizkiot, halaber, Nahia taldeari Jardunaldien esparru-dokumentua prestatzeagatik.

Dibertsitateari buruzko gogoeta egiten hegoaldeko epistemologietatik abiatuta

Lan honen helburua heteronormatibitatearen aurkako borroka gaur egun ekartzen dituen erronka globaletara hurbiltzea da, Boaventura de Sousa Santosek proposatutako hegoaldeko epistemologietatik abiatuta.

Hegoaldeko epistemologiek “Hegoaldea badagoela ikasteko; Hegoalderantz joaten ikasteko; Hegoaldetik abiatuta eta Hegoaldearekin ikasteko” (SANTOS, 2009: 287) gauza den pentsamendu bat garatzeko erronka epistemologiko eta metodologikoa hartu dute beren gain. Ildo horretan, honako hauek erakartzeko balio dute:

“Ezagutza baliodunak, zientifikoak eta ez-zientifikoak ez ezik, ezagutza mota desberdinen arteko harreman berriak ere sortzeko eta balioesteko prozesu berriak, kapitalismoak eta kolonialismoak eragindako desparekotasun eta diskriminazio bidegabeak sistematikoki pairatu dituzten gizarte-maila eta gizarte-taldeen jardueretatik abiatuta”; kapitalismoa eta kolonialismoa desparekotasuna naturalizatzeko beste hainbat sistematako batzuk dira, esate baterako sexismoa (SANTOS, 2011: 35).

Hegoaldeko epistemologiak ezagutza sortzeko modua aldatzeko proposamen bat dira, honako premisa hauetan oinarritutako proposamena, alegia (SANTOS, 2009, 2010):

1. Onartzea “ezagutza baliodun oro testuinguruaren araberakoa dela beti, bai kultura-arloko desberdintasunari dagokionez, bai politika-arloko desberdintasunari dagokionez” (SANTOS ETA MENESES, 2014: 7-8).
2. Eskuarki epistemologiatzat ulertzen duguna tokiaren eta testuinguruaren araberako epistemologia da “desberdintasun bikoitz batean oinarrituta dagoena: mendebaldeko mundu kristau modernoko desberdintasun kulturalen eta kolonialismoaren eta kapitalismoaren desberdintasun politikoan” (SANTOS ETA MENESES, 2014: 8).
3. Munduaren ulermenak munduko mendebaldeko ulermena gainditzen du.
4. Alferrik galtze epistemologikoa dago, ez baitu jardunbide sozial eta politikoaren egituraren oinarri diren ezagutzaren esperientzia baliodunen dibertsitate ugariaren berri ematen. Alferrik galtze horren zati bat ezagutza ikertzeko eta sortzeko moduetan ikus daitekeen begirada kolonialarekin jarduten duten teoria epistemologikoen eta teoria sozialek sustatzen dute.

5. Mundu honetan aukeraz betetako emantzipazio-alternatiba asko daude, baita gabezia¹ eta larrialdi² asko ere.

LGTBen emantzipazio-erronkak hegoalde globaletik abiatuta

Duela ia mende-erdi bat, Stonewall-eko matxinadaren ondorioz LGTBen eskubide zibilak onartzearen alde borroka egiteko nazioarteko mugimendua sortu zen Ipar Amerikan eta mendebaldeko Europan. Antzeko beste taberna batzuk bezala, New Yorkeko Greenwich Village auzoan zegoen Stonewall Inn gaueko ghetto bat zen, eta taberna horretan LGTBen komunitateak agerian jar zezakeen bere kondizioa eta gizarte-mesprexutik babes zitekeen. Bere ohiko bezeroen artean trabestiak, *drag queenak*, transexualak, hippyak, gayak, lesbianak, etorkin la-tindarrak, prostitutak eta prostitutu homosexualak zeuden.

1969ko ekainaren 28ko goizaldean, lizentziarik eduki gabe edari alkoholunak saltzen ari zirela argudiatuz egiten ari ziren sarekatik ihes egin ordez, bezeroak poliziaren indarkeriaren eta errepresioaren aurka (enplegatuak ez ezik identifikaziorik gabeko bezeroak eta beren sexuarekin bat ez zetorren moduan jantzita zeuden gizabanakoak ere atxilotzea, besteak beste) altxatu ziren. Askapenaren txinparta herriaren erresistentzia-mugimendu gisa piztu zen, kaletan poliziari aurka eginez hainbat egunetan. Konfrontazioak iraun zuen bitartean, hainbat lelo errepikatu ziren, hala nola “gayen boterea!”, ordura arte inoiz entzun gabea berrogeita bederatzi Estatutan homosexualen aurkako legeak zeuden herrialde batean.

Stonewall-eko matxinadatik aurrera, LGTBen mugimendu kopuruak gora egin du mundu osoan eta berdintasunezko gizarte bihurtzeko bideak ireki ditu. Sexualitatearen esparruko botere-harremanak agerian jartzea, berdintasunezko ezkontza eta beste familia-eredu batzuk onartzearen aldeko borroka, genero-identitatea diskriminazio-arrazioen artean sartzearen aldeko borroka, gorputza nahi den moduan erabiltzearen aldeko borroka, maskulinitate anti-patriarkalak eraikitzearen aldeko borroka, HIESaren aurkako aktibismoa eta ezkerren jarra-rra heteronormatiboen salaketa dira Stonewall-eko matxinadek abiarazten lagundu zituzten agenda kultural eta politikoaren gatazka-fronteetako batzuk.

- 1 Gabezia hitza erabili dut Santosek (2005) “gabezien soziologia” gisa proposatzen duena zeharka aipatzeko, izena zikindutako eta arbuatutako esperientzia sozialak berreskuratzea helburu duen prozedura soziologiko ez-konbentzionala. Haren helburu nagusia oraina zabaltzea da, eskuragarri dauden esperientzien esparrua hedatuz eta jardunbide eta agente sozialen dibertsitate eta ugartasuna ezagutzera emanez.
- 2 Larrialdi-kontzeptua Santosen “larrialdien soziologiari” dagokio (2005). Santosek jakindurien eta jardunbideen hedapen sinbolikoa gauzatu nahi du dagoen horretan etorkizuneko arrastoak, zantzuak eta joerak –etorkizuneko aukera jakin batzuk erakusten dizkigutenak– identifikatuz

Nolanahi ere, konkista sozial eta juridikoetatik haratago, eta erreferentziazko testuinguruak alde batera utzita, oraindik ere jarraitzen dugu LGTBen kolektiboaren benetako berdintasunaren aldeko borroka egiten. Heteronormatibitatea gizarte patriarkal, kapitalista eta heterosexista globalizatuko eredu batean instituzionalizatuta eta antolatuta dago; eredu horren arabera, heterossexualitatea da sexu-kondizio naturala eta pribilegio jakin batzuk eman edo kentzen dituen erregulazio sozial gisa funtzionatzen du.

Ulertzen badugu eskubideak behetik lortutako konkista soziojuridikoak direla, edo Joaquín Herrera Flores-en (2008: 25) hitzen arabera, “ondasunak lortzearen aldeko borroka-prozesuak direla, *zeren* eskubideak lortzea ahalbidezen edo eragozten dituzten prozesu hierarkiko eta desberdinetan murgilduta bizi baikara”, oraindik ere bide luzea geratzen da egiteko subertsio- eta borroka-prozesu horiek bete gabe geratzen den helburu bat ez izateko eta zibilizazio-aldaketaren dimentsioko proposamenak dituzten pentsamendu-logika, eta antolatzeke nahiz bizitzeko modu bihurtzeko.

Subertsioa erresistentziaren forma fisiko eta agerikoak ez ezik, forma leun eta sinbolikoagoak ere hartzen dituzten diskurtso eta jardunbideen pluraltasuntzat har daiteke. LGTBen kolektiboek historian zehar izan duten subertsioari esker, oraindik ere gure gizarteen zati diren indarkeria fisikoko eta sinbolikoko moduei aurre egin ahal izan zaie. Sexu- eta genero-dibertsitatearen benetako onarpenaren alde borroka egitea dibertsitatea bereizkeria estrategiek uka ez dezaten borroka egitea da, izan ere estrategia horiek desberdina dena mendeko bihurtzen dute eta LGTBak herri-mailan armairua deitzen zaion subhumanitate-egoeran edukitzen dituzte. Gizarteak ezarritako armairuak irekitzea da, beldurra eta bakardadea elikatzen duten eta beren barnean epistemologikoki, politikoki eta sozialki sexualitate “periferikoak” (horrela deitzen die Foucaultek) sartzen dituzten armairuak irekitzea, alegia (2007: 56).

Heteronormatibitatea azpikoz gora jartzeko, naturalizatutako onarpen heteronormatiboak zailantzan jarriko dituzten, hegoalde globaleko ikuspegiak eta esperientziak balioetsiko dituzten, subjektibotasun bihurriak sortuko dituzten eta mobilizazio kolektiboaren kulturaren aldaketak sartuko dituzten teoriak eta praktikak behar dira, borroken zatiketa identitarioa gaindituko duten antolamendu berriak sortzeko. Hortik abiatuta, erronka- eta aukera-esparru bat sortzen da, LGTBen mugimenduek, *queer* teoriaren eremuan kokatutako ikerketek eta, orokorrean, gizarte-aldaketa emantzipatzailearekin konprometitutako pertsonak eta erakundeek proiektu sozial eta politiko kontrahegemonikoa sortzeko, beren borrokarako grina emantzipazio sozial eta sexualaren alde sustatzeko gauza izango den proiektua, hain zuzen ere. Gauzak horrela, lortutako eskubideen jarraitutasuna bermatzeko eta eskubide horiek aipatutako norabidean hedatzeko, ezinbestekoa da munduko errealitateetatik ez ezik, berdintasunaren eta aniztasunaren kausekin bat egiten duten beste eragile batzuekiko harremanean sortzen diren tirabira

eta gatazketatik ere sortzen diren gai batzuk aztertzea. Gai horiek funtsezko zortzi erronka hauekin lotuta daude, gutxienez:

DESPENALIZATZEA. Lesbiana, Gay, Bisexual, Transexual eta Intersexualen Nazioarteko Elkar-tearen (ILGA) azken datuen arabera, gaur egun NBEk aintzatesten dituen 190 herrialde baino gehiagoren artetik, gutxienez hirurogeita hamasei herrialdetan praktika ez-heterosexualak kriminalizatuta daude legez (CARROLL eta ITABORAHY, 2015). Gainera, berdintasun juridikoa ez dator bat berdintasun sozialarekin: LGTB nerabeek (batez ere transexualek) pairatzen duten eskola-jazarpena errealtate benetan kezkarria da eta leku askotan, sexu bereko bikote bat ezin da eskutik helduta joan erasoko dituzten beldurrik izan gabe; horrek guztiak agerian jartzen du kolektibo horrek bizi duen diskriminazio soziala (FERREIRA, 2015).

Testuinguru horretan, despenalizatzeak esan nahi du lege-inklusio bat bermatzea, LGTBen arteko harremanak legez jazartzeari eta zigortzeari uzteaz gain, pertsona horien eskubide zibilak (ezkontza, gurasotasuna, adierazpen- eta elkartze-askatasuna, eta abar) juridikoki aintzate-tsiko dituen lege-inklusioa, eskubide zibil horiek oinarritzko baldintza baitira herritarrak bar-ne-barnetik, sexualki eta ugalketaren alorrean errespetatu eta aintzatesteko (PLUMMER, 2003; SANTOS, 2013).

DESPATOLOGIZATZEA. Honako hau esan nahi du: genero-identitateen eta sexu-portaeren medi-kalizazioa eta biologizazioa desnaturalizatzea, egun dagoen genero- eta sexualitate-aniztasuna onartzea (polimaitatiak, *queerak*, bikote irekiak, *genderfucker*-ak, BDSM, *crossdresser*-ak, *gender bender*, intersexualitateak, eta abar), botere biomedikoari kontra egitea gorputzei eta sexualita-teei buruzko diskurtso hegemoniko gisa, medikuen aurreiritziak eta eman nahi diren diagnosti-koen (“nahasmendua”, “histeria”) legitimitate zientifikoa eta terapiak zalantzan jartzea, diskur-tso patologitzaileak “normaltzat” hartzen denaren eta “patologikotzat” hartzen denaren arteko muga zedarritzen duten botere-harremanen eremuan sartuz (MISSÉ eta COLL-PLANAS, 2010).

Despatologizazioaren erronkak eskatzen du transexualitatea psikiatriako eskuliburuetatik kentzea berehala, Amerikako Psikiatria Elkarteak egindako *Manual Diagnóstico y Estadístico de Enfermedades Mentales - Buru-nahasteen Diagnosi eta Estatistika Gidaliburua* (DSM-5) esku-liburuaren azken edizioaren ildotik (2013). Nolanahi ere, Osasunaren Mundu Erakundearen Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenak (ICD-10³) jarraitzen du transexualitatea “nahasmendu mentalei eta portaeraren nahasmenduei” buruzko kapituluan sartzen.

DESPATRIARKALIZATZEA. Gizonezko homosexualen eta bisexualen artean oraindik ere ohi-koak diren matxismoa, misoginia, lesbofobia eta transfobia desagerraraztea da, baita ema-

3 <http://apps.who.int/classifications/icd10/browse/2010/en>

kumeek pairatzen duten diskriminazio sistemikoari aurre egitea, adina, generoa, etnia, sexu-kondizioa, klase soziala eta abar direla medio dauden diskriminazio modu desberdinen arteko elkarketa aintzat hartzea, emakumeen ezpainak ez daudela zigilatuta eta emakumeen errebeldia emakumeak esplotatu, erreprimitu eta hiltzen dituen patriarkatu kapitalistaren eta heterosexistaren aurka mundu osoan antolatzen dela erakustea ere.

DESKOLONIZATZEA. LGTBen emantzipazioaren historia diskurtso lineal eta eurozentrikoaren bitartez kontatzeko joera dago, hau da, ikusezintasun eta errepresio aurremodernotik hasita sexuaren agerikotasun eta askatasun modernoaren konkistara kontatzen da, Stonewall, Chueca edo San Francisco baino lehen (eta askoz ere lehenago) sexu-erresistentziarik eta sexu-disidentziarik egon izan ez balitz bezala. Joera horrek lagundu du erdi-mailako klaseko gizonen homosexual zuri, heldu eta gaztearen agerikotasuna handiegia izatea koloreko homosexualen, bisexualen eta transexualen, diru-sarrerara txikiak dituzten LGTBen, desgaitasunak dituzten pertsonen, adinean aurrera doazen edo gutxiengo etnikoen borrokan kaltetan. Izan ere, Stonewalleko matxinada trabestiek hasi zuten eta lesbiana eta gay latindarrek zeregin garrantzitsua izan zuten matxinada hartan.

Horrekin lotutako arazo bat da generoari eta sexualitateari buruzko nazioarteko literatura zientifiko gehienak iparralde globaleko esperientziatik eratorritako kontzeptuzko esparru metodologikoak erabiltzen dituela eta hegoaldeko herrialdeetako produkzio intelektualari oso arreta gutxi eskaintzen dionez, eurozentrismoa errepikatzen dela teoria sozialean (CONNELL, 2014).

Agertoki honetan, deskolonizatzeak esan nahi du begirada hedatzea Mendebalde barruan eta Mendebaldetik kanpo eraikitzen diren eta agerikoak ez diren sexu-identitate eta genero-identitate: arabiar munduaren sexu-kulturaletara, Japoniako imajinario sexualetara, sexualitate indigenetara, eta abarretara; nolana ere, sexu bereko pertsonekin sexu-harremanak izaten dituzten pertsonak ez dira homosexual, transexual edo bisexualtzat hartzen herrialde horietan. Esan nahi du heteronormatibitateak eta patriarkatuak gorputzaren, erotikoa denaren, maskulinoa denaren eta femeninoa denaren ispiluko irudi gisa ezarri ziren genero-dikotomiak eta sexu-polarizazioak desegin behar direla. Modu kolonialean hierarkia naturalizatuak kopiatzen dituzten eta demokratizatzen dituzten teoria eta diziplinez uste onik ez izatea eta jarkiteko moduak eta ikustea ahalbidetzen duten existentzia-moduak hedatzea da. Hegoalde-hegoalde elkartasuna arauen araberakoak ez diren sexualitateen artean bultzatzea da, batez ere Afrikako eta Ekialde Hurbileko sexualitateen artean, leku horietan LGTBen komunitateak ez baitira hain agerikoak eta mugimendu sozialak askoz ere erreprimituago baitaude. Baina iparralde-hegoalde elkartasuna sustatzea ere bada; horretarako, garapenerako lankidetzaren nazioarteko proiektuak deskolonizatu behar dira garapenerako aukerak abian jartzeko, beren agendan sexu- eta genero-dibertsitatea zibilizazioaren proiektu neoliberalaren, iparraldekoa-

ren eta erdialdekoaren eta heteronormatiboaren ordezeko prozesuak eraikitzeke erabiliko den zeharkako ardatz gisa sartzen duten aukerak abian jartzeko, hain zuzen ere (AA.VV, 2013).

DESIKASTEA. Hitz horrek esan nahi du generoari eta sexu-dibertsitateari buruzko zapalkuntza-teknika, zapalkuntza-estrategia eta zapalkuntza-iturri multzo zabala (eskemak, teoriak, kontzeptuak, estereotipoak, pertzepzioak, jarduteko arauak, ohiturak, interpretazioak, eta abar) –matxismoa, sexismoa eta heterosexismoa legitimatzen duten egia sakratu gisa aurkezten dena– ezagutzera ematea eta, ahal den neurrian, alde batera uztea. Desikastea ikastea baino zailagoa da; izan ere, jarauntsitako eskemak zalantzan jartzen direnean, zerbaitek balantza egiten du eta desikasten ari denari aukera ematen zaio aurreiritziari heldu ordez elkartasunari heltzeko, hori baita oinarria sexu-dibertsitatearen eremuan “aintzatespenen ekologia” sortzeko (SANTOS, 2005: 165). Gauzak horrela, desberdintasunak desparekotasun gisa naturalizatzeari aurka egiten zaio eta gutxiago zarela sentiarazten zaituzten desberdintasunak desberdintasun berdin bilakatzen dira elkar onartuz, hau da, desberdintasunak ezartzen dituzten hierarkietatik kanpo zentzurik ez duten desberdintasun bihurtzen dira. Sousa Santosek proposatutako ekologiaren metaforak dibertsitatea ahalmen gisa nabarmentzen du eta generoaren eta sexu-dibertsitatearen alorreko gabeziak eta larrialdiak identifikatzeko bidea irekitzen du.

DESMERKANTILIZATZEA. 1970eko askapen-mugimendua klaseen gizarte kapitalista batean sortu zen. Globalizazio neoliberalaren inguruan antolatutako berregituraketa kapitalistaren prozesuak bidea ireki du LGTBen komunitatearentzat. Merkatua komunitate horren eguneroko bizitzan sakonki sartuta dagoenez, existitzeko, harremanak izateko eta agerikoa izateko modu merkantilizatuak sortu ditu tabernen, moda-negozioen eta merkataritza-argitalpenen inguruan, besteak beste, eta, gainera, komunitate horren eremuan eta ekintzen despolitizazio esanguratsua sustatzen du; gainera, zerbitzu horiek, askotan, eduki sozial eta politikorik ez duten irabazizko logikak gidatzen dituzte. Desmerkantilizatzea kontsumoan oinarritutako emantzipazio kapitalista faltsua salatzea da, baita sexualitatea ondasunen eta zerbitzuen erosketaren bitartez bizitzeari uztea, kapitalismoak LGTBentzat gordeta dituen estereotipo komertzialak desegitea, merkatu-harremanek menderatzen ez dituzten kontrabotereko guneak sortzea, eta, laburbilduz, militantzia eta aldaketa antikapitalistarekiko konpromisoa indartzea ere

INTERSEKZIONALITATEA. Diferentziazio desberdin modu orori aurka egiteko mendekotasun eta pribilegio modu desberdinen artean dagoen erlazioa ulertu behar da, onartu behar da generoa, adina, arraza (konstrukto soziokultural gisa) eta klase soziala ez direla esperientzia-eremu isolatuak, baizik eta, sektoreen arteko azterketak argudiatzen duenaren arabera, harreman gurutzatuak eta gatazkatsuak direla elkarren artean (McCLINTOCK, 1995). Avtar Brah-i eta Anne Phoenix-i jarraikiz (2004: 76), intersekzionalitatea “diferentziazio-ardatz asko –ardatz ekonomikoa, politikoa, kulturala, psikologikoa, subjektiboa eta esperientziaren alorrekoa– historikoki testuinguru espezifiko batean elkartzen direnean sortzen diren ondorio

konplexu, menderaezin, askotariko eta aldakortzat” hartzen da. ⁴Testuinguru askotan zaila da LGBTen mugimendu baten diskurtsoa eta estrategiak aztertzea arrazagatiko eta klaseagatiko diskriminazio-gaiak kontuan izan gabe, marjinazioa areagotu egiten baita praktika kapitalista eta kolonialekin.

Ikuspegi horrek biltzen duen konplexutasuna erronka bat da feminismoentzat, *queer* teorientzat eta hegoaldeko epistemologientzat ahaleginak egiten dituelako kontzeptuzko hausturak ez ezik, haustura praktikoak eta politikoak ere sortzeko boterearen egitura zapaltzaileekin, eta, era berean, diziplina akademikoen ikerketa-agenda eta gobernuen, gizarte-mugimenduen eta desparekotasunaren gaiarekin kezkatuta dauden beste eragile batzuen agenda interpelatzen du.

KOSMOPOLITISMO ERREBELDEA. Globalizazio neoliberalak nagusitzen den, bizitza merkantilizatzen duen eta botere patriarkala eta heteronormatiboa globalizatzen duen garaian bizi garenez, mugimenduen politikatik mugimenduen arteko politika batera igaro behar dugu, emakumeen eta LGBTen emantzipazioaren alde borroka egiten duten sare, plataforma eta mugimenduen arteko aliantza berri eta zabalak sortzeko gauza izateaz gain, sistema patriarkalaren, heterosexistaren, arrazistaren eta klasistaren aurkako borrokak eta erresistentziak partekatzen dituzten mugimenduen arteko estrategiak sortzeko gauza den politikara, hain zuzen ere. Hegoaldeko epistemologiaren ikuspegitik mendeko kosmopolitismoa deitzen zaiona da: “tokiko borroka aurrerazaleen arteko gurutzatzea, beren *in loco* ahalmen emantzipatzaileak maximizatzeke asmoz tokiko eremutik haratagoko/tokiko bateratzeen bitartez” (SANTOS, 2005:279). Gogoratu behar da, hain zuzen ere, *queer* mugimendua kosmopolitismo batetik sortu zela, behetik, eta mugimendu feminista eta homosexual aldirikoenarekin elkartu zela beltzekin, migratzaileekin, transexualekin, GIBaren eramaileekin eta prostituteekin. Elkartzen direnean, sare kosmopolitek aliantza gertagaitzak eta ustekabeko aliantzak sor ditzakete; esate baterako, 1984an, Margaret Thatcherrek gobernatzen zuen Erresuma Batuan LGTB aktibistak eta meatzarien mugimendua elkartu ziren (KELLIHER, 2014). Aliantzak sortzeko aukera horrek aintzatespenen ekologia praktikan jartzea ahalbidetzen du, emantzipazio sozialeko proiektu desberdinak harremanetan jartzen dituen eta aldaketa sozialaren aldeko borroken eta agenden interseksionalitatea ezartzen duten politizazio modu berriak sortzen laguntzen du.

Edonola ere, Luanna Barbosak eta Hilan Bensusan-ek adierazten dutenaren arabera (2012), funtsezkoa da kontrahegemoniak behetik eraikitzeke antolatutako dibertsitate hori Mendebaldeko diskurtso emantzipatzaile unibertsalistek –esate baterako, giza eskubideena– ez zapaltzea, baizik eta “kontraidentitateen horizontaltasun-proiektua” islatzea, erresistentzien homogeneizazioa eragotziko duen eta hizkuntza emantzipatzaileen polifonia aldarrikatuko duen proiektua islatzea, alegia.

4 Itzulpen propioa.

Aipatutako zortzi erronka horiek zeharkako desafio bakar batean laburbil daitezke: *autoahalduntzea*. Erronka hori autogaikuntzako, kontzientzia kritikoaren sorrera kolektiboko eta herri-botereko prozesu bat da, zeinaren bitartez, inplikaturako pertsonak eta taldeek beharrezkoak diren autoestimua, ikaskuntzak eta gaitasunak lortzen dituzten heteronormatibitateak sustatutako diferentziazio desberdinaren estrategiak itxuraldatzeko. Marcela Lagardek definitzen duenaren arabera (2000: 27), “ahalduntzeak, termino politikoetan, bizitza pertsonala eta kolektiboa mugatzen duten jarraibide politikoak aldatzea esan nahi du, zapaltzen duten botere pertsonalak eta sozialak desagerrarazteko baldintzak sortuz”.

CES erakundea eta hegoaldeko epistemologiak

Coimbrako Unibertsitateko Centro de Estudos Sociais (CES) erakundea teoria kritikoa ikertzeko eta sortzeko egiaztatutako diziplinarteko zentro bat da, 1978. urtean sortu zena eta hasiera-hasieratik Boaventura de Sousa Santos-ek zuzendu duena. Erakunde horretako ikertzaileen plantillan soziologoak, ekonomistak, abokatuak, antropologoak, filosofoak, historialariak, psikologoak, hezkuntzaren, literaturaren eta nazioarteko harremanen alorretako espezialistak, arkitektoak, ingeniariak eta biologoak daude.

Azken urte hauetan, CESeko jarduera zientifikoak nabarmen zabaldu dira, bertako ikertzaile taldea handitu delako, ikerketa-proiektuak ugartu direlako, hainbat doktorego-programa sortu direlako, nazioarteko lankidetzak, atzerriarekiko lankidetzak-jarduerak eta komunikazio zientifikoko tresna nagusien bizitasuna zabaldu delako. Tresna nagusi horien artean hedapen zientifikoko eta zabalkuntza akademikoko jarduerak edo argitalpenak daude.

CESeko ikertzaileek parte hartzen duten ikerketa-proiektuek, nazioarteko sare zientifikoek eta doktorego-programek erakundearen dinamiken berri ematen dute. Erakunde horri 1997an, 1999an, eta duela gutxi, 2005. eta 2010. urteen hasieran, bere merezimendu zientifikoak aitortu zizkion nazioarteko epaimahai batek, Zientzia, Teknologia eta Hezkuntza Ministerioaren Ikerketa Unitateak Ebaluatzeko prozesuaren esparruan, Bikain sailkapena eman baitzion. 2002ko otsailean, Zientzia Ministerioak Laborategi Elkartuaren maila eman zion CESi, eta 2011n beste hamar urtez berritu zion, honako ildo estrategiko hauetan oinarrituta:

- A. Epistemologia berriak sustatzea eta ideien interakzio kulturala eta ikerketa berritzailea bultzatzea.
- B. Sare nazionaletan eta nazioartekoetan parte hartzeko aukera indartzea, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko lankidetzak ez ezik, portugesa hizkuntza ofiziala duten herrialdeekiko lankidetzak ere kontuan izanik bereziki.

- C. Desparekotasunaren eta arrazagatiko, sexuagatiko eta generoagatiko diskriminazioaren aurkako borrokari dagokionez, besteak beste, giza eskubideen ikuskera progresistak garatzen laguntzea, baita demokrazian sakontzen laguntzea ere.
- D. Portugalgo gizarteak ikuspegi konparatzailearen alorrean duen ezagutza areagotzea, ikuskeren dibertsitatea eta eztabaida demokratikoa sustatzearen.
- E. Politika publikoak gauzatzen eta justizia-administrazioa aldatzen laguntzea.
- F. Graduondoko ikasketak eta prestakuntza aurreratuko jarduerak sustatzea.

Orientabide estrategiko horiek zentro horretako bost ikerketaguneko eta sei behatokiko jardueren esparruan garatzen dira. Ikertzaileek egiten dituzten eta gaur egun martxan dauden goi-mailako ikerketa-proiektu nazional eta nazioarteko ugarien artean, eta lan honetan azalduzako hegoaldeko epistemologiaren planteamenduen arabera, honako hauek nabarmendu behar dira:

ALICE PROIEKTUA. *Ispilu arraroak, ustekabeko ikasbideak: munduko esperientziak partekatzeko modu berri bat definituz Europarako*⁵ izeneko proiektua, Europako Ikerketa Kontseiluak finantzatu duena 2011. eta 2016. urteen artean, eta Boaventura de Sousa Santosek koordinatu duena.

Gaurko Europak ikas al dezake munduko esperientzia berritzaileetatik eta etekina atera al dezake haietatik? galderatik abiatuta, proiektuaren asmoa ezagutza konbentzionala berriz aztertzea da, Sousa Santosek proposatutako hegoaldeko epistemologiaren bitartez, eraldaketa sozialako paradigma teoriko eta politiko berriak lau gaikako arlo handitan garatuz: 1) demokrazia demokratizatzea: intentsitate handiko demokrazia moduei buruzko azterketa eta hausnarketa egiteko modu desberdinen arteko antolamenduak hartzen ditu barnean. 2) Konstituzionalismo eraldatzailea, kultura-artekotasuna eta Estatuaren aldaketa: estatu modernoaren batasunaren, berdintasunaren eta homogeneotasunaren suposizioak eteten dituen konstituzionalismo experimentalaren eta kolonialismo ondokoaren azterketa barne hartzen du –jatorria herri-borrokak izanik–. 3) Beste ekonomia batzuk: ekonomia plural baten horizontean, kapitalistak ez diren antolamendu ekonomikoko moduei buruzko azterlana hartzen du barnean. 4) Giza eskubideak eta giza duintasunaren bestelako gramatikak: kultura-arteko ikuspegi batetik begiratuta dauden eskubideen eta betebeharren azterketa hartzen du barnean, unibertsaltasunaren eta erlatibismo kulturalaren arteko eztabaidatik haratago.

Proiektua sortzeko ideia hegoalde global anti-inperialetik abiatuta ikaskuntzak egiteko aukera da, betiere kontuan hartuta proiektuaren helburuari laguntzen dioten esperientziak Hegoafrikan, Bolivian, Brasilen, Ekuadorren, Indian, Mozambiken, Frantzian, Italian, Espainian, Erresuma Batuan eta Portugalen identifikatzea.

5 <http://alice.ces.uc.pt>

2014ko uztailean Coimbran egin zen “Hegoaldeko epistemologiak: Hegoalde-Hegoalde, Hegoalde-Iparralde eta Iparralde-Hegoalde ikaskuntza globalak” izeneko nazioarteko mahai-ingurua une pribilegiatua izan zen elkarrekin hausnarketa egiteko eta esperientzia eta ikuspegi aukerakoak eta emantzipatzaileak partekatzeko.

Bestalde, **INTIMATE PROIEKTUA** – *Herritarrak, Aukeratzeko Zaintzak eta Eskubidea: Intimitatearen mikropolitikak Hegoaldeko Europan*⁶ proiektua; hori ere Europako Ikerketa Kontseiluak finantzatu zuen 2014. eta 2019. urteen artean eta Ana Cristina Santosek koordinatu zuen.

Proiektu horretan intimitatearen politikak aztertzen dira hegoaldeko Europan (Espainia, Italia eta Portugal) behin eta berriz lehentasun politiko, juridiko eta sozialen marjinetan dauden pertsonen ikuspegitik, lesbiana, gay, bisexual eta transexualen ikuspegitik, alegia.

Proiektu horren helburu nagusia legearen, politikaren eta kulturaren alorreko berrikuntza lortzen laguntzea da konparaziozko ikerketa-proiektu baten bitartez, oinarri enpirikoa izanik. Proiektu hori, gainera, herritarrak, zaintzak eta aukeratzeko eskubidea arauzkoak ez diren intimitateetatik abiatuta berriz aztertzeo diseinatuta dago.

INTIMATE gaikako hiru ardatz handiren gainean egituratuta dago: 1) mikropolitika sexua-fektiboak; 2) gurasotasunaren mikropolitikak; eta 3) adiskidetasunaren mikropolitikak. Aipatutako herrialdeetan konparaziozko azterketa kualitatiboak egiten dira honako gai hauei buruz: lesbianen arteko harremanak, polimaitasuna, medikuaren laguntza bidezko ugalketa eta haurduntza subrogatua, haurrei izenak jartzea, transexualen arteko zaintza-sareak eta helduaroan lagunak elkarrekin bizitzea.

Ondorioak

Hierarkia soziosexualen eta hierarkia horien oinarri diren prestakuntza epistemologiko eurozentrikoak desegiten ez diren arte, sistema patriarkal eta heteronormatiboaren hegemoniak indarrean jarraituko du. Are gehiago, feminismotik edo bestelako teoria kritikoetatik eratorritako aukerako jardunbideek ez dute arriskuan jarri sistema horren hegemonia. Audre Lordek (2003) gogorarazten digu nagusiaren tresnak eraldatzea prozesu konplexu eta gogorra dela eta maila askotako ekintzak hartzen dituela barnean. Audre Lorderen ustez ezin da nagusien etxea desegin nagusien tresnekin; kasu honi gagozkiola, patriarkatu arrazistaren, klasistaren eta heteronormatiboaren tresna teoriko, metodologiko eta soziopolitikoarekin. Horregatik, hegoaldeko epistemologiak borroka egiteko eta autoahalduntzeko tresnak dira, nagusiaren etxea desegiten lagunduko duen begirada ulerkorragoa lortzeko.

6 <http://www.ces.uc.pt/intimate>

Erreferentziak

- AA.VV. (2013), *Los deseos olvidados. La perspectiva de género y de diversidad sexual en la Cooperación al Desarrollo, en la Educación para la Ciudadanía Global y en la promoción y defensa de los derechos humanos de las personas inmigrantes y refugiadas*. Bilbao: Nahia.
- BARBOSA, L. Y BENSUSAN, H. (2012). "Por uma internacional queer: travestis, hijras, muxes e a negociação local das alternativas ao cis-heterossexualismo". *Anais de Congresso Internacional de Estudos sobre a Diversidade Sexual e de Género da ABEH*. vol. 1 (1), Salvador, Brasil: UFBA http://abeh.org.br/arquivos_anais/H/H004.pdf [acceso: 15/02/2016].
- BRAH, A. Y PHOENIX, A. (2004), "Ain't I a Woman? Revisiting Intersectionality", *Journal of International Women's Studies* 5 (3), 75-86.
- CARROLL, A. Y ITABORAHY, L. P. (2015), "Homofobia de Estado. Un estudio mundial jurídico sobre la criminalización, protección y reconocimiento del amor entre personas del mismo sexo". Ginebra: ILGA, http://old.ilga.org/documents/ILGA_SSHR2015_espanol.pdf [acceso: 16/02/2016].
- CONNELL, R. (2014), "Margin becoming centre: for a world-centred rethinking of masculinities", *NORMA: International Journal for Masculinity Studies*, 9 (4), 217-231.
- FERREIRA, E. (2015), "Desordens no planeta: direitos LGBT", en Ferreira, E. *et al* (orgs.), *Percursos feministas: desafios os tempos*. Lisboa: UMA/Universidade Feminista.
- FOUCAULT, M. (1997), *Arqueología del saber*. México, D, F.: Siglo XXI.
- HERRERA FLORES, J. (2008), *La reinención de los derechos humanos*. Sevilla: Atrapasueños.
- KELLIHER, D. (2014), "Solidarity and Sexuality: Lesbians and Gays Support the Miners 1984-5", *History Workshop Journal*, 77 (1), 240-262.
- LAGARDE, M. (2000), *Claves feministas para la autoestima de las mujeres*. Madrid: Ed. Horas y Horas.
- LORDE, A. (2003), *La hermana, la extranjera: artículos y conferencias*. Madrid: Horas y Horas.
- MCCCLINTOCK, A. (1995), *Imperial Leather: Race, Gender, and Sexuality in the Colonial Contest*. New York: Routledge.
- MISSÉ, G. Y COLL-PLANAS, G. (eds.) (2010), *El género desordenado. Críticas en torno a la patologización de la transexualidad*. Barcelona/Madrid: Egaless.
- PLUMMER, K. (2003), *Intimate Citizenship: Private Decisions and Public Dialogues*. Seattle: University of Washington Press.
- SANTOS, A. C. (2013), *Social Movements and Sexual Citizenship in Southern Europe*. Basingstoke: Palgrave Macmillan.
- SANTOS, B. S. (2005), *El milenio huérfano. Ensayos para una nueva cultura política*. Madrid: Trotta/ILSA.
- SANTOS, B. S. (2009), *Una epistemología del Sur: la reinención del conocimiento y la emancipación social*. México: Siglo XXI/CLACSO.
- SANTOS, B. S. (2010), *Refundación del Estado en América Latina. Perspectivas desde una Epistemología del Sur*. Lima: IIDS-IILS y Programa Democracia y Transformación Global.
- SANTOS, B. S. (2011), "Epistemologías del Sur". *Utopía y praxis latinoamericana*, vol. 16, nº 54, 17-39, disponible en: <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=27920007003> [acceso: 10/02/2016].
- SANTOS, B. S. Y MENESES, M. P. (eds.) (2014), *Epistemologías del Sur (perspectivas)*. Madrid: Akal.

EMAKUMEEN PARTAIDETZA ETA SEXU-ANIZTASUNA MST-N

Manuela Martins da Costa Aquino

Movimento dos trabalhadores Rurais Sem Terra (MST)

www.mst.org.br

Lurrik Gabeko Landa Langileen Mugimenduko militantea da Manuela Aquino. Hezkuntza-sektorean hasi zuen bere jarduna eta baita MSTk egindako prestakuntza-ikastaroen jarraipenean ere. Bi urtez, Florestan Fernandes Eskola Nazionalen aritu zen arlo pedagogikoan, sustapen- eta prestakuntza-ekintzak garatuz kultura-arloan.

Gaur egun Sao Pauloko MSTren estatu-zuzendaritzaren taldean dago, hezkuntzaren sektorearen arduradun gisa, eta MSTren koordinazio nazionaleko kide da.

Lurrik Gabeko Landa Langileen Mugimendua 1984an sortu zen, Cascavel-en (Parana), 1. Elkarraldi Nazionala izan zen urtean, orduan erabaki baitzen nekazari-mugimendu nazionala sortzea. Hiru helburu nagusirekin sortu zen: lurraren aldeko borroka, nekazaritza-erreformaren aldeko borroka eta sozialismoaren aldeko borroka. Honako printzipio hauek ditu, besteak beste: zuzendaritza kolektiboa, zereginen banaketa, azterketa, oinarriarekiko lotura, diziplina, plangintza-egikaritzapena-ebaluazioa, eta kritika eta autokritika. Borroka egiteko modu nagusiak lurren okupazioak, lurzatiaren okupazioak, martxak, hiri handietan antolatutako manifestazioak, eta kanpamenduak dira, besteak beste.

MST 24 estatutan antolatuta dago herrialdeko bost eskualdetan, eta antolatzeko modua sektoreen eta instantzien bidez gauzatzen da. Guztira, finkatutako 350 mila familia inguru dira eta 130 mila familia gehiago oraindik ere kanpamenduetan.

Hasieratik izan zen debatea borrokaren inguruko pertsona guztiak erakundearen antolakuntza-prozesuan nola inplikatu behar ziren erabakitzeko: gizonak, emakumeak, gazteak, adineko pertsonak, haurrak. Debate horretan, Mugimenduarentzako desafioa balitz bezala planteatu zen emakumeen partaidetza. Emakumeen kolektibo espezifikoaren antolamenduak eta haien klase- eta genero-zabalkuntzako egoerari buruzko eztabaidak inplikatu egin zuen, denborak aurrera, erakundea osorik, eta genero-debaterako baldintzak ezartzen hasi ziren.

MSTren 2000. urteko Elkarraldi Nazionalan sortu zen Genero Sektorea, honako helburu hauekin: erakundea eratzeko instantzia eta guneetan genero-debatea piztea, materialak sortzea, gizon eta emakumeen berdintasun-partaidetzarako helburu objektiboen eraikuntzarako lagungarriak izango diren jarduerak, ekintza eta borroka proposatzea, eta, horrela, MST bera indartzen jarraitzea.

Abiapuntutzat hartzen dugun kontzeptuaren arabera, gizonen eta emakumeen arteko gizarte-harremanen analisiaren kategoria sozial bat da, aldi berean rola eta portaerak definitzen dituena gizartearen indarrean dauden balioen arabera. Gizarte kapitalistan, lanaren banaketa sozialean, esplotazioan eta propietate pribatuan oinarritutakoan, jabetza pribatua eta klaseen gizarte egituratzen duen menderatze-sistema gisa egituratzen da patriarkatua. Horrela, genero-menderatzeak oinarri materiala du (ekonomia) –lanaren sexu-banaketan oinarritutakoa–, baita oinarri materiala ere (menderatze ideologikoa), aparatuek ideologikoen bidez errepikatzen dena, hala nola Estatua, erlijioa, familia, hedabideak eta abar.

MSTrentzat, genero-harreman berriak eraikitzeko borroka estu lotuta dago klase-borrokarekin. Genero-harremanen funtsezko berdintasuna ezin izango da gauzatu kapitalak ezarritako esparruen barruan. Horrenbestez, emakumeen emantzipazioaren aurkako borroka jabetza pribatuaren amaieraren aldeko, lurraren eta lurraldearen aldeko, Nekazaritza Erreformaren

aldeko, eta abarren aldeko borrokaren alboan egon behar du. Emakumeen antolamendurako, bi elementuk funtsezko garrantzia dute: auto-antolamenduak eta protagonismoak. MSTn bi elementu horiek Genero Sektorearen lerro politikoetan berresten dituzte, besteak beste:

- MSTren sektore guztien prestakuntza- eta gaikuntza-jarduera guztietan, gizonen % 50eko eta emakumeen %50eko partaidetza bermatzea.
- Kanpamendugune eta kokalekuetan koordinatzaile bat egongo dela bermatzea, debateak, azterlanak eta bideratzeak koordinatuko dituen, eta jarduera guztietan instantziaren ordezkari gisa parte hartuko duena.
- MSTren jarduera guztietan, sektore eta instantzia guztietakoetan, Haur Hezkuntza izango dela bermatzea (haurrei zuzendutako gunea, haurrak zaintzeaz gain subjektu gisa prestatzea eta euren espezifikotasuna lantzea ahalbidetuko diena) familiaren benetako partaidetza ahalbidetzeko (gizona eta emakumea).
- Emakumeen partaidetza bermatzea Masen Frontean eta Finkatutakoen Sistema Koope-
ratibistan emakumeak bultzatzeko kanpamenduetara joan eta bertan jardutera, borroka-prozesuko jardueretan parte hartzera eta kokalekuetan aktiboak izatera. Emakumeen partaidetza bermatuta, halaber, produkzio-lerroen plangintzak, produkzio-lanaren egikaritzapenean, jardueren administrazioan eta emaitzen kontrolean.
- Indarkeria modu guztien aurka borroka egitea, bereziki emakumeen eta haurren aurka, haiek baitira indarkeriaren biktimarik handienak kapitalismoan.

Gizarte berri bat eraikitzeko borrokan, genero-desparekotasunek aurre egin behar dieten esparruez gain (kapitalak ezarritakoak), kapitala garatzera eta hura erreproduzitzera bideratu beharko dira borroka horren ekintza taktikoak, eta nekazari-mugimenduaren kasuan, kapitalak landan aurrera egitearen dinamikaren ikuspegitik begiratuta.

Azken hamarkadetan, Brasilen aurrerapauso handia eman du “landa-negozioa” deitutakoak, finantza-kapital transnazionalaren inbertsio handiarekin. Landa-negozioak monolaborean, lurraren eta gizarte-aberastasunaren kontzentrazioan eta, lanekuaren **esplotazioan** eta esportaziorako produkzioan oinarritutako jarduerak ugaritu ditu. Enpresa transnazionalak landa-negozioaren, meatzaritzaren eta hidronegozioaren sektore estrategikoetan duten jardunak Estatua du aliatu, hark laguntzen baitu diruz kapitala, inbertsioen eta finantzaketaren bidez, ekimen pribaturako baliabide publikoak transferituta.

Jokaleku horren ondorioa komunitate indigenen eta nekazarien aurkako indarkeriaren gorakada da, lurren utzarazte, mehatxu, hilketa eta jazarpeneekin. Bioaniztasunaren, elikagai-subiranotasunaren eta hazien gaineko kontrolaren galera ikaragarriekin. Lurra eskuratzeko edozein demokratizazio-prozesu blokeatzeaz gain, Nekazaritza Erreforma esaterako.

Emakumeak Via Campesina mugimenduan duen protagonismoak jokaleku honetan adierazpiderik gorenena du martxoaren 8ko ekintzetan, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta. 2006. urtean, FAO Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen nazioarteko elkarraldia egin zenean (NBE Nazio Batuen Erakundeari lotutako erakundea da), funtsezko ekintza politiko baten protagonista izan ziren emakumeak, aurre egin baitzieten transnaziionalari. Bi mila emakume inguru, Brasilen Via Campesina mugimendua osatzen duten hainbat erakundetako militanteak, Aracruz Celulose enpresaren Baso Baratzea okupatu zuten, Barra do Ribeiro-n, Rio Grande do Sul lurraldean.

Orduz geroztik, martxoaren 8a emakumeen borrokaren erreferentzia bihurtu zen landaren garapenerako proposatutako eredu horren salaketarekin lotuta, ekintza sendoagoekin eta betiere protagonista emakumeak zirelarik¹. 2016. urte honetan, Lurrik Gabeko Emakumeen Borroka Jardunaldi Nazionalaren lema zera da, *Emakumeak naturaren eta elikadura osasungarriaren defentsan, landa-negozioaren aurka*: enpresa transnaziionalen bidez Brasilgo nekazaritzan garatzen ari den atzerriko kapitalaren aurkako salaketa-jardunaldi bat, gizartearen arreta erakarriz ingurumenenerako landa-negozioaren eredu suntsigarriaren gainean, herrialdearen elikagai-subiranotasunarekiko mehatxuri buruz eta Brasilgo biztanleriaren bizitzari buruz, zuzeneko eragina baitu emakumeen errealitatean. Nekazaritza-, ur- eta mehatze-arloko eredu esportatzaileak ezin du Brasilgo gizartearen ekonomiaren oinarri izaten jarraitu. Horretaz gain, borrokek langile nekazarien aurka erabilitako indarkeriarekin lotutako inpunitatea salatzen dute.

MSTk egin dituen 32 urteotan, argi dago erakundearen handitasuna prozesuen eraikuntza kolektiboan eta bere militanteek eta bere oinarriak egindako eskaerak sartzeko ahalmenean dagoela. Ildo horretan, erakundearen oinarri sozialaren osaerari buruzko irakurketa-prozesu horren erreferentzia bat izan zen Mugimendu hau egunetik egunera eraikitzen duten LGBT pertsonak badaudela kolektiboki onartzea. Horrela, MSTk generoari buruzko mugak zabaltzen ditu, sexu-aniztasunaren inguruko debatea ere sartzen duen neurrian.

1 Data horrek Lehen Mundu Gerraren testuinguruan ditu sustraiak, Errusian, bertako emakume sozialistek otsailaren 23an egiten baitzuten egutegi errusiarraren arabera (1917), eta mendebaldeko egutegiaren arabera martxoaren 8ari zegokion egun hori. Egundorretan izan zen ehule eta jostunen greba espontaneo bat Petrogradon, Alderdiaren erabakiaren aurka, eta kalera irten ziren manifestazioan ogia eta bakea eskatuz. Leon Trostki eta Alexandra Kollontai, biak ere Errusiako Langile Alderdi Sozialdemokrataren Batzorde Zentraleko kideak, honako hau idatzi zuten: "emakume langileen eguna, martxoaren 8a, egun gogoangarria izan zen historian. Iraultzaren zuzia altxa zuten emakumeek egun horretan".

Martxoaren 8ari buruzko bertsio burgesean bestelakorik izan zen eta 60ko hamarkadan sortu zen, Kubako Iraultza, Gerra Hotza, Txinako Kultura Iraultza (Maoren Liburu Horia), Pantera Beltzak eta Askapenaren Teologia ezaugarri izan ziren testuinguru historiko batean. Bertsio horrek berriz hartzen du eta erabiltzen du emakumeak 1857ko greba bat zela-eta fabrika batean erre zituztela dioen kontakizuna, baina Renée Cote-k egindako ikerketak lehen ere erakutsi zuten gertakari hori ez dela erabat zuzena.

Horrela, 2015. urtean egin zen “MST eta Sexu Aniztasuna” I. Mintegia, helburutzat hartuta sexu-aniztasuna eta LGBT pertsonen MSTn duten lekua zein den eztabaidatzea, eta zein den MSTk hezi nahi duen LGBT pertsona, borrokatzeko modu berrietan aurrera egiteko, indarrak metatzeko taktika eta estrategia berrietan, mobilizatzeko modu berrietan aurrera egiteko, batera eta artikulatuta, ahaleginak batuz eta kualifikatuz, ahaleginik gabe ez baitago sozialismoa eraikitzeke aukerarik.

Ildo horretan, ezinbestekoa da langileen klasea osatzen duten pertsonen aniztasuna ulertzea borroka eta erresistentzia modu guztiak indartu eta kualifikatzeko modu gisa, zeinek kapitalaren erasoan aurrean betiere aurrera egin behar duten benetan emantzipatzailea den klase-proiektu baten eraikuntzan.

Mintegiko emaitzen artean, honako baieztapen hauek ditugu:

- Sexu-aniztasunaren eta Lurrik Gabeko LGBT pertsonen auto-antolamenduaren gaiak zentzua du soilik Herriko Nekazaritza Erreforma proiektuarekin eta gizarte-erlaketaren eta sozialismoaren aldeko borroka orokorragoekin lotuta badago.
- Borroka hori ezkerreko borroken barruan landu bada ere, ezkerrek ukatu eta deskalifikatu egin zituen borroka horiek, sarritan LGBT pertsonak jazarriz eta haiek bizi izandako indarkeriei kasurik egin gabe, gizartean zein ezkerren gune propioetan bizi izandakoei, alegia. Egungo uneak gero eta argiago erakusten ditu ezkerren debate- eta batasun-premia gai horren inguruan ere.
- Sexu-askatasun iraultzailearen aldeko borroka kolektiboa da, eta eraikuntza horri une honetatik bertatik ekin behar zaio, gure erakunde osoaren eskutik, ikuspegi liberal burgesarekin kontrajarrita.
- Patriarkatuaren aurkako borroka klase-gizartea gainditzeko estrategia gisa, pertsonen funtsezko berdintasuna kapitalak ezarritako esparruetan inoiz ere posible izango ez dela ulertuta.
- Gizakiaren prestakuntza alde guztietako ikuspegitik, gizakiaren dimentsioak lehenetsita, hala nola lana, dimentsio politiko-ideologikoa, kulturala, estetikoa eta afektiboa, funtsezkoa baita hori gure Herriko Nekazaritza Erreformako gure proiekturako, giza harreman eta gizarte-harreman berriak inplikaturik.

Genero-parekotasunean aurrera egiten dugu instantzietan, kontzeptuetan eta ebazpen politiko eta antolamenduzkoetan, guztiak ere oso garrantzitsuak, MSTren borroka-prozesuaren metaketaren adierazgarri baitira, parekotasuna betearazteko barruko presio-indarra egikaritzeaz gain.

“Bukatu da Emakumeen aurkako Indarkeria” kanpaina egin eta abiarazi genuen CLOC Landako Erakunde Latinoamerikako Koordinakundearen eta Vía Campesina erakundearen esparruan,

etxeko indarkerian bereziki kontzentratuta, hori ari baita izaten emakumeen giza eskubideak bortxatzeko modu nagusietako bat. Halaber, definitu genuen kanpaina honek ez duela soilik emakumeen kanpaina bat izan behar, guztiek beren gain hartutako kanpaina bat izan behar du, gure gizartean eta, jakina, gure erakundeetan beretan ageri den kultura patriarkalaren aurkako eraso antolatzen lagunduta.

Sozialismoa eta Feminismoa eraldaketako gure horizonte estrategikoaren zati dira. Horregatik aldarrikatzen dugu Feminismo Nekazari eta Herrikoa, intsumiso, sozialista, esplotazio kapitalistako politikekin funtzionalak diren kontzeptu patriarkal eta burgesak zalantzan jartzen dituen. Horrela, eraikitzen ari garen kontzeptu feminista sendo lotuta dago prozesu politikoei, prestakuntza politikoko antolamenduzkoei eta borroka jakin batzuen ingurukoei, guztiak ere iraunkorrak, langile-klasearen bizitza sozial, ekonomiko eta politikoa aldatuko dutenak, eta bereziki emakume langileenak.

“...Proposamen feministak amesten ditugun aldaketa sozialistak definitzen lagunduko du, horregatik borrokatuko gara kapitalismoaren eta patriarkatuaren indar konbinatuak iraganaren zati bihurtzen diren arte. Gizakien arteko harremanak nahi ditugu. Berdin gisa eraikitakoak. Askotariko herri eta kulturen arteko bizipena eraikitzea, deskolonizatua, matxismorik eta arrazakeriarik gabea. Indarkeria-adierazpen guztietatik (sexistak edo patriarkalak direla) libre dagoen herrialdea edo mundua, eta emakumeek Lurra eskuratzea ahalbidetuko duen Nekazaritza Erreforma Integralarekin” (Landako Emakumeen Latinoamerikako IV. Batzarra 2010ean, Quito-Ekuador).

SEXU- ETA GENERO-IKUSPEGIA MUGARIK GABE ERAKUNDEAN

María Viadero Acha

Mugarik Gabe

www.mugarikgabe.org

Erakunde Internazionalista da Mugarik Gabe, 1987az geroztik nazioarteko lankidetzako prozesu eraldatzaileak sustatzen dituena erakunde aliatuekin batera Latinoamerikako herrialdeetan, eta hezkuntza-prozesuak bultzatzen dituena gure ingurune hurbileneko errealitateak sozialki eraldatzeko. Azken garaiotan prozesu horiek gero eta globalagoak dira eta konektatuagoak daude. Erakunde asanbleario eta ezkerrekotzat ere definitzen dugu geure burua, eta uste dugu ezaugarri horiek ere asko markatzen dutela zer pentsatzen dugun eta pentsatzen duguna gure ustez nola egin behar den, beti egin baitugu praktikan aldaketa bat izatearen aldeko apustua, ez soilik diskurtsoetan.

Mugarik Gabe¹ GGKE bat da 1987an hasi zenetik ikuspegi feminista eta eraldatzaile bat sartzearen aldeko apustua egin izanagatik ezagututakoa, ikuspegi horri beti horrela deitu izan ez badiogu ere (emakumeak, ahalduntzea, desparekotasuna, generoa... guztiak ere laneko urte hauetan guztietan lagun izan ditugun kontzeptuak dira). Apustu politiko horretatik ezagutu eta planteatzen dugu azken garaiotan genero-ikuspegiari lotutako sexu-aniztasunaren ikuspegia.

Prozesu hori modu zehatzagoan ageri da 2014. urtean Nahia Taldeak egindako gonbita zela-eta. Ikuspegi horiek nazioarteko lankidetzaren prozesuetan sartze aldera eraikitzen ari ziren erreminten kontraste-prozesu batean parte hartzeko gonbita egin ziguten. Nahia Taldeak sustatutako argitalpenak baliagarriak izan dira gogoeta egiteko, oso hurbilekoak eta ulergarriak dira, eta tresnak eskaintzen dituzte sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia aztertu eta gure prozesuetan txertatzeko.²

Aurten bertan, Mugarik Gabek Las Dignas (El Salvador) elkartearekin eta Nahia taldearekin batera apustua egin dugu Gasteizko Udalarik *“Lesbianak errebeldian beren eskubideen alde borrokan”* proiektua aurkezteko. Lehen aldiz bultzatu da proiektuen lankidetzaren espezifikoko deialdi bat *“LGBT pertsonen eskubideak sustatzeko edo garapen-bidean dagoen LGBT kolektibo jakin baten egoera edota posizio soziala hobetzeko”*. Deialdi horrek 60.000€ zituen atal horretarako eta azkenean bi proiektu onartu ziren, biek Mexikon eta herrialde horretako eta Euskal Herriko mugimendu feministarekin lotutakoak. Interesgarria da balioestea deialdira lau erakunde aurkeztu direla nahiko antzeko proposamenekin, guztiak lesbofeminismotik begiratuta, protagonismoa emakume lesbianen kolektiboena den prozesu mesoamerikarrak babestuta. Hipotesi bat izan liteke erakunde batzuen aldetik genero-ikuspegi bat modu eraldatzailean sartzeko egindako apustuak aliantzak eragin izana mugimendu feministarekin munduko hainbat tokitan eta horrek hurbiltasun handiagoa ahalbidetzea emakume lesbianen eskaera espezifikoari, agenda fe-

1 Erakundeari buruzko informazioa gehiago lortzeko: www.mugarikgabe.org

2 Nahia Taldearen argitalpenak: “Nahia. Los deseos olvidados” eta “Lurreratuz. Aterrizando los deseos olvidados”. Honako webgune honetan eskuragarriak: <http://www.iniciativasdecooperacionydesarrollo.com/?p=1027>

ministaren zati gisa. Jarraipena eman behar diogu deialdi horri eta sakonago ezagutu deialdiaren eduki eta baliabideak, eta GGKEen eta beste kolektibo batzuek emandako erantzuna.

Bi prozesu horiek lotuta daude aldez aurretik Mugarik Gaben modu inkontziente, indibidual edo isolatuan egindako gogoetekin. 2015ean, Fernando Altamiraren laguntzarekin, sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegiaren egoeraren **DIAGNOSTIKO** bat egin dugu. Horretarako elkarrizketak egin zaizkie Latinoamerikako gure erakunde bazkideen arteko zenbaiti eta Mugarik Gaberi espezifikoki, bi kontraste-tailer egiteaz gain. Diagnostiko hori lagungarria izan zaigu bultzatzen ari ginen beste ekintza batzuk detektatu, haiei buruzko gogoeta egin eta ageriko egiteko, ikuspegi hau indartzen dutenak eta haietaz erabat jabetzen ez ginenak.

Beste leku batzuekin ditugun **lankidetzaren prozesuen** barruan, Mugarik Gabek apustu egiten du, bere hiru lan-ildoetan (genero-ekitate, herri indigenak eta bizitza jasangarriak) emakumeak ahalduzko eta mugimendu feminista indartzeko prozesuei eman beharreko babesaren alde. Lankidetzaren proiektuen bidez babesten dituen hamabi erakunde bazkideetatik, sei emakumeen elkarteak edota mugimendu feministako elkarteak dira, eta beste seiak erakunde indigenak edota laborariak. Emakumeen eta feministen erakundearen kasuan, guztiak ere indar desberdinarekin beren agendetan, sexu- eta erreproduzio-eskubideen defentsa gaineratu dute, eta sexu-aniztasuna eta lesbofobiaren salaketa bereziki.

**Badira zenbait erakunde gai honetan sartu direnak sexu- eta erreproduzio-eskubideei buruzko prestakuntzen bidez.
MGren Lankidetzaren Taldea.**

Diagnostiko prozesuan espezifikoki elkarrizketatuak izan diren hiru erakundeak (guztiak ere feministak) bat datoz honako hau adierazteko:

- Zeharka tratatzen duten prestakuntza-prozesuetan, salaketa- eta posizionamendu-kanpainen, eta abar.
- LGTBI ikuspegitik ekiten zaio oro har, baina lesbianismotik sakontzen da eta lantzen da. Zenbait kasutan ere gertatu dira LGTBI kolektiboen indartze-prozesuak eta jazarpen-egoera orokorragorako laguntzak eta espezifikoki pertsona transexual eta transgeneroekin.
- Zeharka lan egiten da, baina hezkuntza- eta genero-arloan soilik, eta beharrezkoa izango da, halaber, erakundearen beraren barruan lantzea, beldurrak, erresistentziak eta aurreiritziak baitaude gai hori jorratzeko.

Eraldaketa sozialerako hezkuntza-prozesuetan ikusten dugunez, bilakaera izan da feminismoarekin eta genero-ikuspegiarekin lotuta bultzatzen ditugun prestakuntza-prozesuetan. Alde batetik erabiltzen ditugun kontzeptuak lantzeko daukagun premiarengatik eszentialismoak edo errealitatearen analisi sinplistik ez sortzeko, sexua generoarekin eta sexualitateare-

kin lotuta. Eta beste alde batetik, eta horren ondorioz baita ere, sistema heteropatriarkalarekin, maitasun erromantikoarekin, interseksionalitatearekin, sexu-aniztasunarekin eta sexualitate librerako eskubidearekin lotutako kontzeptu eta azterketak gaineratuta, eta horretaz gain, harremaneko, elkarbizitzako, familiako eta amatasuneko eta abarreko eredu normatiboei egindako kritika. Azken urteotan zenbait kontzeptu eta kategoria sartu ditugu: transfeminismoa, queer teoria, LGTBIQ eskubideak... gure diskurtsoarekin koherenteak izateko, gure aliatuekin eta baita ere gure proposamen eta kontzeptuei buruz beren esperientzia eta zalantza propioekin prestakuntzaguneetara iristen diren eskakizunengatik.

Euskal plataforma feministetan parte hartzea funtsezkoa izan da sexu- eta genero-aniztasuneko ikuspegi horrekin zenbait kasutan lotutako mugimendu feministaren diskurtso eta jarrerak ezagutzeko. Gune horietan urteak daramatzate salatzen heteropatriarkatua, trans pertsonak edo lesbianek pairatzen dituzten indarkerien inpaktuak edo trans pertsonen patologizazioa, beste zenbait eskaeraren artean.

Eraldaketa sozialerako hezkuntza-prozesuen barruan, azken urteotan indartsu sartu dugu gure agendan emakumeen giza eskubideen defentsa eta indarkeria matxisten salaketa espezifikoki. Lehentasun horren zati gisa indarkeria matxistatzen heteroarautik ateratzen diren beste gorputz batzuen aurkako indarkeriak sartu ditugu (lesbofobia, homofobia eta transfobia). Baina sexu- eta genero-aniztasuna prozesu horretara sartzea ez da guztiz erraza izan. Hasieran jarduera baten kanpo-ebaluazio bat egin ziguten, eta jarduera horretan, aurrerapauso eta zailtasun handiekin, zera identifikatzen zuten, indarkeria matxistei buruz hitz egiten bagenuen ere, estrategia zehatzean indarkeria sexistako kasuak soilik hartzen genituela. Hori kontuan izanda, aniztasun handiagoa sustatu dugu ikuspegi horretatik begiratuta, trans emakumeen eta lesbianen aurkako indarkeria-kasuak barnean hartuz bultzatzen ari garen ikerketa batean, indarkeria matxistei buruzko jardunaldi bat eginez atalarteko begiradarekin (aniztasun kulturala, funtzionala eta sexuala), eta egiten ari garen materialetan begirada hori sartzen saiatuz, hasiberrikako zerbaiten modura bada ere.

Urteak dira Mugarik Gaben apustua egin dugula aldaketa soziala lortzeko proposamenek aldaketa indibiduala eta antolamendu-aldaketa ekartzearen alde. Horrela, 2000. urteaz geroztik **genero-ekitatearen aldeko antolamendu-aldaketako prozesu** batean sartuta gaude, eztabaidak, gogoetak eta kontzeptuak eragin dituen prozesu batean, nolabait ere sexu- eta genero-aniztasunaren proposamen horiekin gurutzatzen direnak:

- Prozesu horrek lagundu egin digu azterketa binarista eta esentzialistak detektatzen, hasieran desparekotasunak detektatzeko oso baliagarriak izan zirenak, baina oso mugatuak direnak, eta are gehiago erakunde feminizatuetan.
- Azken urteotan eta Natalia Navaroren laguntzarekin, praktika generizatzaile, kontziente eta inkontzienteen Joan Acker soziologoak sortutako kontzeptuak erabiltzen hasi gara, lagungarri zaizkigunak emakume-gizon binarismoa gaindituko dutelakoan pribilegioak erreproduzitzen edo atxikitzen dituen praktika patriarkalak detektatzeko.

- Antolamendu-kulturan espezifikoki kontzentratutako genero-ekitatearen aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak gure balioei buruzko gogoeta eginarazi digu, aniztasuna gehituz lehendik bazeuden beste balio batzuei, hala nola identitate kolektiboa.
- Prozesu horrek heteronormatibitatearen aurkako antolamendu-aldaketako zenbait elementu sinboliko detektatzen lagundu digu, hala nola ezkongabe-baimen bat izatea, esku-bidea ematen duena opor-egunak hartzeko ezkongabea izateagatik (behin bakarrik bakoitzaren lan-bizitzan), ezkontzen diren bikoteei pribilegiarik ez emateko modu gisa, beste bizi-eredu edo bizi-egoerekin alderatuta.

Diagnostiko-prozesuaren kontraste-tailerren zati gisa, Mugarik Gaberen Plan Estrategiko berrian sartu da sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia haren gainean prestakuntza burutzeko elementu gisa. Eztabaidarako beste proposamen zehatzago batzuez gain, hala nola elementu sinbolikoak barnean hartzea (erakundearen informazio orokor guztia banatzea, emakumeak/gizonak/beste batzuek bilduz memorieta, bazkideen informazioetan eta abar). Beste proposamen bat izan da aztertzea ikuspegi hori nola sartzen dugun gure ikuspegi politiko globalagoan (sistema kapitalistaren eta patriarkal/heteropatriarkalaren salaketa, genero-ikuspegiari lotutako sexu-aniztasuna...).

Jardunaldietan galdetzen ziguten zer **ikuspegiatik** ekiten diogun sexu- eta genero-aniztasunari. Gure kasuan, Mugarik Gabek ez dauka gai horri buruzko definitutako ikuspegi bat, praktiketatik gauzatzen ari da eta erakundearen alde aurretik definitutako beste jarrera batzuekin koherentea izanik: Giza Eskubideetan eta Feminismoan oinarritutako ikuspegi politikoa, lankidetzaren eraldatzaileko ikuskeraz gain, zeinaren arabera, beste hainbat elementuren artean, apustuak subjektu emantzipatzaileei jarraikiz planteatzen diren, prozesuei jarraikiz planteatzeaz gain. Azken urteotan saiatu gara, halaber, atalarteko ikuspegi bat sustatzen, eta begirada zabaltzeko aukera bat, opresioen loturaren konplexutasuna zabaltzeko aukera bat, izateaz gain, beste borroka batzuekin ere lotzen gaituena ikuspegi internazionalista batetik, herri indigenen ikuspegiatik, herritarren partaidetzaren ikuspegiatik, demokraziaren ikuspegiatik. Elkarrizketatutako gure bazkideen kasuan, apustu hau ikuspegi politiko batetik burutzen dela planteatzen dute, kasuen arteko batean ezkerrekoa, Giza Eskubideetan oinarrituta.

Azterketa garbi batek erakusten digunez, Mugarik Gaberen zein gure aliatuen kasuan feminismoa izan da ikuspegi horretarako sarrera-puntua, identitateak inposatzen eta mugatzen dituen heteropatriarkatuaren aldean.

Mugarik Gaben begirada horri ekiteak kontzeptuak konplejizatzea ekarri du, geure burua zailantzan jartzea, mugitzea eta aukera berrien testuinguru bat sortzea, eta aldi berean ezagutzarik ezaren edo lehentasunetako zailtasunen aurrean, adibidez. Ikuspegi honen ondorioz, ageriko egin eta berrikusi behar izan dugu begirada zabal eta konplexuago honetatik jada egi-

ten ari garena, eta genero-ikuspegiarekin konektatu, gure erakundean oso presente dagoen elementua baita hori (maila globalean, posizionamenduan eta azterketan zein ekintza espezi-fikoetan), eta errealitate bati erantzuna ematea, hain ageriko moduan presente ez badago ere, gune jakin batzuetan espezifikoki eskatzen digutena (unibertsitateko ikasleak, plataforma feministak...). Prozesu hori oro har eta Fernando Altamirak egindako diagnostikoa espezifikoki lagungarria zaigu gure ikuspegia eta erakunde gisa egiten ditugun praktikak aztertzeko, han eta hemen gure aliatuek egindako ikaskuntzei jarraikiz ere bai.

Potentzialitate, zailtasun eta geratzen zaizkigun **erronka** nagusiekin pentsatuta, hemen partekatzen ditugu haietako zenbait:

POTENZIALTASUNAK

Sexu- eta genero-aniztasuna gaineratzeak ez dakar genero-prozesu eta prozesu feministak ikusezin egitea. Gehiago da prozesu horiek konplexu egin eta aberastea beste azterketa batzuekin, azterketa horiek ere eredu heteronormatibo eta patriarkala zalantzan jartzen dutelarik. **Fernando Altamira**

- Diagnostikoan elkarrizketatutako Mugarik Gaberekin aliatutako Latinoamerikako erakundeak sexu- eta genero-aniztasuna gaineratzearen garrantzia nabarmentzen dute, beren azterketetan zein beren ekintza zehaztuz. Elkarrizketatutako hiru erakundeak tradizio argi eta garbi feminista duten erakundeak dira eta zuzenean jorratzen dute gai lesbikoa, ez hainbeste beste aniztasun batzuk. Haietako batek adierazten du nola sartu den lesbianismoa emakume maiekin, identitateak haien kosmoikuspegitik eraikitzen saiatzearen bidez.
- Mugarik Gaben balioesten dugu ikuspegi hori zuzenean sartu ez bada ere zeharka sartu dela, eta diagnostikoak ezagutzen ez ziren aurrerapausoak ageriko egin dituela; aurrerapauso horiek elkartuz gero, ageriko egiten dute praktiketatik gertatu den apustua, baita beste erakunde batzuekin (bazkideak eta plataforma feministak) daukagun aliantzarengatik kutsaduraz ageriko egindako apustu bera ere.
- Eraldaketa Sozialerako Hezkuntzako prozesuen kasuan esplizituki sartu da sexu-aniztasuna, emakumeen eskubideak defendatzeko eta indarkeria matxistak salatze prozesuaren zati gisa, zailtasunekin kasu horretan ere.
- Sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegi horrek GGKEetako generoaren hastapenekin lotzen gaitu, eta egoera hura errepikatu egiten da sarritan: kontu pribatua da, ez gaituzen bazkideen gauzetan sartu, emakumeen zenbait erakunde barnean hartu eta kito... Uste dugu ildo horretan emandako gure aurrerapausoak lagungarriak izan daitezkeela erresistentziak detektatzeko eta alde aurreko ikaskuntzekin berriz hasteko.

- Mugarik Gabek badu Genero Arlo bat, eta arlo horretan partekatu da espezifikoki prozesu hori, gune horretan aurkitu ditugu alde argiak erakundearen ikuspegi hori ulertzeari eta aztertzeari dagokionez, baina zati garrantzitsu batek balioesten duenez, aniztasun hori ez gaineratzearen ondorioz errealitatearen zati garrantzitsu bat galtzen ari dira, baita ikuspuntu zabal eta askotariko batetik eskaera globalak egitea ere.

Interpelatu eta motibatu egiten nau. Iruditzen zait gehiago dela genero-ikuspegiaren begirada zabaltzea. Eta bada zerbait faltatzen ari zitzaiguna. Mugarik Gaberen Genero Arloa

ZAILTASUNAK

- Gaur egun ez daukagu ikuspegi eta apustu kolektibo definiturik. Balioetsi behar dugu ildo horretan antolamendu-apusturik nahi dugun eta apustu hori nola zehaztu, erakundearen konpromiso bat izan dadin, apustu indibidualez edo lantalde jakinez haratago.
- Gure bazkideen artean bidea ez du erakunde osoak egin, eta batez ere gertatzen da presuntakuntza-arloetan edota emakume lesbianak daudenetan. Mugarik Gaben antzeko zerbait gertatu da, apustu hau Latinoamerikako gure bazkideetan hasita, gero *generoko* zenbait eta *hezkontzako* beste batzuetan, alde nabarmenak aurkituz erakundeko pertsonen artean.
- Kontzeptu zabalen, konplexuen, iragaitzazkoen, aldakorren, likidoen eta antzekoen aldeko apustuak *tiraderetatik* irteten laguntzen digu, eta errealitateak eta trantsizioan dauden pertsonak ulertzen (kontzepturik eta definitutako eta *eskuliburuaren* araberako kontzepturik gabe). Baina aldi berean kontzeptu horiek gure prozeduretan bildu beharreko erantzun zehatzak zailtzen dituzte, baita mundua nola ulertu behar den ere, denbora eskatzen dute gogoetarako eta irekitzea zalantzan jartzeko eta berrikuspen propioa egiteko.
- Kontuz ibili behar dugu *lasterbidearekin*, gure aliatuen aurrerapausoen eta apustuen gainetik ibili behar dugu posizionamendu propio eta kontzienterik gabe, politikoki zuzenean erortzeko arriskuarekin LGTBI eskaerak sartzean, gure posizionamenduak edo gure eguneroko praktikak aldatu gabe.
- Erresistentzia handiagoen pertzepzioa erakunde indigenetan sexu-aniztasunaren aurrean eta kontzeptu propioak zalantzan jartzea, hala nola osagarritasuna, familia indigenaren garrantzia, eta abar. Ildo horretan ere, eurozentrismoarekiko beldurra nabari da gure begiradatik, injerentziarekiko eta etnozentrismoarekiko beldurra, ez baitu prozesu eta forma propiorik errespetatzen.

- Erakunde mistoen erresistentziak eta kontrakoagoak diren beste testuinguru batzuenak. Azken garaiotan ikusten ari garenez, modu negatiboan, genero-ikuspegia politikoki zuzenagoa edo funtzionalagoa da zenbait agenterentzat eta sexu-aniztasunaren ikuspegia deserosoagoa gerta liteke, baina zenbait testuinguru aurkitu ditugu non agenda horien nolabaiteko instrumentalizazioa gertatzen ari den.
- Sexu- eta genero-ikuspegiaren sakontasunik eta ezaguerarik eza hainbat nahaste sortzen ari da, honako hauekin lotutakoak:
 - > Sexu-aniztasuna sexu-aukerei lotzea.
 - > Sexu-aniztasunaren ikuspegiak LGTBI kolektiboen babesarekin zerikusia duela pentsatzea.
 - > Sexu-aniztasunaren eta genero-aniztasunaren arteko lotura ez ulertzea.
 - > Sexu- edo genero-aniztasunaren ikuspegiak erakundearen agenda edo lehentasunetara beste gai bat gehitzea inplikatzeko duela planteatzea, edo *gehiegi zatitzea* inplikaturiko duela, helburu globalago bat galduz.
 - > Ikuspegi horretatik, emakumeen subjektu politikoa galtzeko beldurra, beharrezkoa izaten jarraitzen duela argi edukiz, baina beste ikuspegi berri honetatik esentzialis- moak erreproduzitzeko zalantzekin. Nola uztartu biak?
 - > Generoaren hastapenekin ikasi genuen ez zela zerbait pribatua eta ez hori bakarrik, pertsonala politikoa zela eta, berriz ere, sexualitatea gure imajinariora itzultzen da esparru pribatuaren elementu gisa, egin gabeko bidea daukagun esparruarena, hain zuzen ere.

Beste gai bat gehiago? Ezin dugu gauza gehiago hartu, kontzentra gaitezen jada egiten ditugun gauzetan. Mugarik Gabe.

ERRONKAK

Antolamendu- eta ikuspuntu-mailan:

- Lehen erronka da balioestea ea ikuspegi horretan aurrera egin nahi dugun modo kolektiboan, eta horrela bada, nola imajinatzen dugun. Horrela bada, nola sartu ikuspegi hori maila globalean, nola egin *generokoena* den gauza bat soilik ez izateko. Argitu behar dugu ikuspegi hori garrantzitsua ote den egiten dugunerako eta sinesten dugunerako, aurrera egiten nola jarraitu behar dugun balioesteko.

- Gure erakundeen eta beste batzuen **prozesuak** eta denborak errespetatzea, eta prozesu pertsonalak ez behartzearen garrantzia berriz hartzea, prozesu kolektiboen alde. Prozesu bat bezala ikustea, presarik gabe, baina etenik gabe, behartu gabe... baina modu kolektiboan eginez. Lehen planteatzen genuenez, honaino ekarri gaituzten garaiak eta oraingoak gogoratzea, genero-ekitatearen aldeko aldaketei dagokienez.
- Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko aniztasun-ikuspegi hori sartzea genero-ekitatearen aldeko **antolamendu-aldaketako** gure prozesuan.
- Oreka bilatzea edo gutxienez argitasun handiagoa sexu- eta genero-aniztasuneko ikuspegi biltzen duen emakumeen ahalduntzearen aldeko apustuaren konbinazioan.
- Kontuz ikuspegi instrumentalekin baldin eta:
 - Berriz hartzen badute kolektibo horiek arauan batzea nahi duen sexu-aniztasuna eta sistema bera zalantzan jarri gabe.
 - Hasierako proposamenen eduki eraldatzailea husten badute politikoki zuzenak diren eta aldaketarik eragiten ez duten makillaje-operazioetarako.
 - Diskurtsoak aldatzen badituzte ekintza espezifikoen aldeko apusturik egin gabe, heteronormatibitate horrek taldeetan inpaktu desberdinak dituenaren adierazgarri, diskriminazioko eta indarkeriako modu desberdinak sortuz, askoz ere nabariagoak LGTBIQ+ kolektiboetan.

Bultzatzen ditugun prozesuetan:

- Elkarriketatutako erakunde bazkideetakoren batek planteatzen digu ikuspegi hori lankidetzaren politikaren barruan sartzearren GGKEek eragin politikoan duten papera.
- Gure aliatuek (hemen eta Latinoamerikan) egiten dutenaren ezagueran sakontzea, zer estrategiarekin eta zer ikuspegititik.
- Bazkideekin esperientziak trukatzeko, haien artean eta aliatuekin hemen. Tokiko aliantzak eta aliantza globalak sortzea.
- Sexu-aniztasuna eragin politikoan sartzeko, generoaz gain, eta LGTBIQ kolektiboak sartzeko eredu-aldaketarako subjektu politiko gisa.

Asko dira erronka eta zailtasunak, baina baita ere potentzialitateak aldaketan gogoetan eta sorkuntzan aurrera eragiten jarraitzeko sexu- eta genero-ikuspegi honetatik begiratuta.

FUNDACIÓN TRIÁNGULO

Silvia Tostado

Fundación Triángulo

www.fundaciontriangulo.es

1. Fundación Triángulo

Fundación Triángulo (FT) 1996az geroztik Espainiako eta mundu osoko Lesbiana, Gay, Bise-xual eta Transexualen gizarte-berdintasunaren alde lan egiten ari den erakundea da, hainbat LGBT erakunderi lagunduz beren Estatuetan egiten duten lanean.

FTk gaur egun Madrilen, Andaluzian, Gaztela eta Leonen, Kanarietan eta Extremaduran ditu egoitzak.

Gure erakundearen estatutuek biltzen dituzten oinarrizko printzipioak eta ideiak, aldaketa -prozesuan daudenak, honako hauek dira:

- Edozein segregazio-ahaleginen aurka aktiboki lan egitea. Pertsona guztientzako berdintasun soziala defendatzen dugu, herritarren gizarte batean, ez gizarte partzelatu batean.
- Adierazpen librerako eskubidea eta pertsona bakoitzak sentitzen duen genero-identitatea onartzeko eskubidea defendatzen dugu. Transexualitatea gaixotasuntzat jotzea espresuki gaitzesten dugu, eta hura erabat despatologizatzea exijitzen dugu.
- Herritarren datu pertsonalen erabileraren eta biltegiatzearen aurka agertuko gara, baita inori gizartearekiko irekitze-prozesuak nolakoa izan behar duen inposatzeko edozein ahaleginen aurka agertu ere.
- Alderdi politiko, eliza, administrazio edo beste edozein erakunde publiko edo pribaturekiko independenteak garelara adierazten dugu.
- Sexu-orientabidearengatiko diskriminazioaren aurka gaudela adierazten dugu, baita Fundazioaren barne-egituretan ere.
- Beste gizarte-mugimendu batzuekin lankidetzan jardungo dugu, elkartasunak gu bereizi behar gaituen balioa izan behar baitu.
- Gizarte-sarearen zati garelara uste dugu, eta gure gizartea gizarte bidezkoago baterantz hobetzeko eta bideratzeko ahalegina egiteko konpromisoa hartzen dugu.
- Lan horretan Fundazioa boluntariotzaren alde agertzen da erabat, gure kasuan boluntariotza laikoa izanik, horixe baita oinarri dugun beste balioetako bat.
- Osasunerako eskubidearen alde lan egingo dugu, hiesaren aurka eta hiesaren ondoriozko edozein diskriminazioaren aurka borrokatuz. Uste dugu arrisku-taldeak ez direla existitzen, eta hiesaren aurkako borroka gizarte osoak ere bere gain hartu beharko zukeen ahalegin bat dela.

- Sanitate publiko eta unibertsalaren alde gaude erabat, bitartekorik ez dagoelako inor arretarik jaso gabe geratuko ez dela bermatzen baitu hark.
- Gizarte-eremu guztietan afektibitatea adierazteko aukera defendatzen dugu.
- Bakea, tolerantzia, Giza Eskubideak, gizarteratzea, diferentzia indibidualekiko errespetua, sexuen arteko tratu-berdintasuna, transexualen eskubideak eta gure gizartearen lorpen sozialak defendatzen ditugu.

Lanean hasi ginenetik jakin bagenekien munduko beste leku batzuetan LGBT aktibistak eta taldeak berdintasunaren eta bizitzaren alde eta diskriminazioen eta inpunitatearen aurka borrokan ari zirela, eta horrek borroka globalen ikuspegitik gu ere konprometitzen gintuela, eraldaketa-prozesuetan gure erakundeari bigarren mailako zeregina inposatzen ziotelako, eta prozesu horien lidergoa tokiko erakundeen eta haien aktibisten esku egon behar duelako.

Erakundea 1996an eratu zenetik, baina modu sakonagoan 1999. urtetik aurrera, munduko hainbat lekutako gure kideen Giza Eskubideak errespetatzeko borrokaren aldeko apustu erabakigarria egin dugu, lurralde-egitura guztiakin koordinatuz eta gure erakundearen arlo guztiak barnean hartuz.

2. Nola hasi genuen Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren alorreko gure lana?

Fundación Triángulok Garapenerako Lankidetzaren alde lan egiteko errealitate eta premiarekin topo egin zuen beste herrialde batzuetako kideak ate-joka etorri zitzaizkigunean.

Zehazki, Paraguaiko aktibista bat, Grupo de Acción Gay-Lésbico taldekoa eta Argentinako kide bat, VOXekoa (Rosario) zena, Espainian zeudela gure egoitzara etorri zirelako (bakoitza bere aldetik) euren ekintzen berri ematera eta babes-premia zutela adieraztera, batez ere euren proiektuetarako finantzaketa lortzeko.

Ordutik aurrera, LGBT pertsonen eskubideen defentsaren esparruan lan egiten zuten taldeetako harremana “elur-pilotaren” bitartez egin zen; erakunde bat ezagutzeak beste batzuegana hurbiltzen zintuen, eta gauza bera gertatzen zen aktibistekin.

Une horretan ere hasi ginen nazioarteko foro eta guneetan parte hartzen, adibidez ILGA federazioan, 2002. urteaz gozotik bertako kide izanik, eta horrek nazioarte mailan hainbat erakunderekin harremanetan egoteko aukera eman zigun, baina aldi berean gure ekarpenak egin genezakeela eta hainbat tokiko talde gauzatzen ari ziren prozesuetarako baliabide-bilaketan eta esperientziak trukatzeko prozesuan tresna erabilgarri bihurtzeko gintezkeela uste zuten erakundeei erantzun ahal izateko bideak arretaz aztertzen hasi ginen.

Triángulon ez genuen inolako esperientziarik lankidetzaren proiektuen kudeaketari zegokionez, ezta funtsak lortzeko eta kudeatzeko moduari zegokionez ere, eta horregatik gai horri buruzko informazioa eskuratzen eta gai horretan prestatzen hasi ginen, gure lehen hurbilketatik hainbat eztabaida planteatuz.

Fundazioan diru-laguntzen hainbat esparrutan bildutako beste proiektu batzuen formulazio, betearazpen eta justifikazioan bagenuen esperientzia, baina lankidetzako inprimakiak eta eremu horretako lan-estrategiak oso desberdinak dira, askoz konplexuagoak eta guretzat erabat ezezagunak ziren kontzeptuak biltzen zituztenak hala paradigmatan (Milurtekoko Garapen Helburuak, Garapen Jasangarriko Helburuak) nola alderdi teknikoan (plangintza nagusia, esparru logikoa, egiaztapen-iturriak, objektiboki egiaztagarriak diren adierazleak eta abar), eta gai horiek guztiak ez genituen batere ezagutzen.

Ibilbide horren lehen urteetan, lankidetzako erakundeekin harremanetan jartzen ginenean harrিতuta geratzen ziren, eta honako hau esaten ziguten: *“baina zuek ez zarete garapenerako lankidetzako erakunde, zuek gay eta lesbianen erakundeak zarete, ba al du zerikusirik?”*. Gaur egun oraindik ere noizean behin azalpenak eman behar dizkiegu hala erakunde-arduradunei nola GGKEetako kideei, Garapenerako Lankidetzaren munduan bazterkeria, ikusezintasuna, heteronormatibitatea, patriarkatua eta abar ere egon badaudelako.

Horrez gain, uste dugu Nazioarteko Lankidetzaren mugimenduak egin zuen hutsegiteetako bat erakunde erabat espezializatuak egitea izan zela, askotan herrialde emaleetako biztanleria zibil antolatuearekin inolako harremanik izan gabe.

Errealitateak agerian uzten du ez dela batere ideia txarra beste herrialde batzuetako antzeko erakundeekin aliantzak lortzeko lan egiten duen herritar-oinarriko gizarte-erakunde bat izatea.

Lehen une haietan, oinarri teorikorik ez genuenez, ez genuen gure tokia aurkitzen lankidetzaren paradigmatan barruan, lankidetzaren -soilik- “pobreziaren” aurkako borroka gisa ulertzen baitzen (pobrezia baliabide materialen gabeziara mugatuz, sexu- eta genero-aniztasunaren-tzakako espaziorik gabe) eta bide -bakarra- Nazioarteko Lankidetzaren bidez “gauzatzea zela” uste zelako: eskolak eraikiz, putzuak irekiz, laboreak landatuz eta abar.

Hori ez da ikuspegi horren edukiarekiko kritika bat, baina bai ordea haren eskusibitatearekiko kritika bat bi ikuspuntu oinarritzat hartuz:

- Bazterretan kokatutako “kausak” kanpo uztea (hor zegoen eta dago sexu- eta genero-aniztasuna).
- “Beste” agenteak kanpo uztea, guk ere Garapenerako Lankidetzaren baldintza berdinetan egoteko eta haren parte izateko behar adinako legitimitatea bagenuela uste genuen.

Gure ikuspegiak ez zuen tokirik. Maitatzeko Eskubidea ez zen Giza Eskubidetzat jotzen, ba-koitzak sentitzen duena izateko Eskubidea, eta ez NANeko sexuaren atalean markatutakoa, ez zen Giza Eskubidetzat jotzen, norbere buruaz gozatzeko, aldarrikatzeko, adierazpenak egiteko eskubideak ez ziren Giza Eskubidetzat jotzen, eta bazter utzi daitekeenaren eta lehentasunezkoa ez denaren kategorian daude sartuta.

Eta hausnarketa horren ondoren hona hemen egin beharreko galdera: **zergatik lankidetzan jardun Sexu eta Genero Aniztasunaren ikuspegitik?**

Guretzat erantzuna deserosoa da, baina nahiko erraza

HORI EZ EGITEAK HETERO-ARAURA EGOKITZEN EZ DIREN PERTSONAK BAZTERTZEKO, DISKRIMINATZEKO, MODU ARRAZOITUAN KANPORATZEKO ERABAKI KONTZIENTEA DAKAR; ETA HORI GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ETA HEZKUNTZAREN EREMU TEORIKO ETA PRAKTIKOEN BARNEAN GERTATZEN DA.

Era berean nabaritzen dugu LGBT aktibismoa, guk lan egiten dugun esparruan, matxista, eurozentrikoa eta kapitalista ere badela, eta elkartasunik eza ere nabaritu izan dugu.

LGBT aktibismoaren barruan, hainbat kasutan, bakardadea ere nabaritu dugu.

Lankidetzaren lantzen duen erakunde gisa dugun ibilbidearen hasiera, ezagutza teknikorik gabe baina borondate handiarekin boluntariorzatik eta konpromiso pertsonaletik gaur garena izatea ahalbidetu diguten urratsak egiten hasi ziren aktibisten eremu eta baliabide urrietatik hasi zen gauzatzen.

Gure gain hartutako erronkaren ondorioz Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzatik lan garrantzitsua egin dugu aktibista askorekin, baita hutsegiteak egin ere, lesbiana, gay, bisexual eta transexualen aniztasunaren onarpena eta haien bizitza-kalitatearen hobekuntza lortzera eskusiboki bideratutako hainbat proiektutan.

Gure lanik internazionalistena ez da soilik kasualitatearen ondorio, izan ere, pentsatu eta planifikatu egin baikenuen, baina esperientziarik eta erreferenterik ez izatea gairik beharreko oztupoak izan ziren, eta guk, LGBT erakundea ginen heinean, gure mugapenak ere bagenituen.

3. Ibilbidea, Begiradak

1999tik aurrera, hainbat bidaia eta foroaren bitartez LGBT taldeekin harremanak estutu genituen, batez ere Hispanoamerikako taldeekin, premiak partekatuz, erronken berri izanik, eta

elkarrekin lan eginez estrategiak garatzeko eta aurkezten dizkiguten proiektuetarako finantzaketa lortzeko.

Aldi berean, lankidetzaren arloan aritu zirenak eremu horretan lan egiteko prestatu ziren.

Triangulon Lankidetzarako arloa sortzeko erabakia ez zen hartu Patronatuan eta ondoren egoitzetara lekualdatu, baizik eta ia zuzendaritza nazional osoa eta zuzendaritza autonomiko gehienak konprometitu baitaude lankidetzarekin lehen mailan, beharbada “printzipioz” gurekin zerikusi handiagoa duten arloekin baino gehiago, hala nola VIH, hezkuntza edo gazteria. Eta konpromiso horrek erakunde osoa busti du eta gure emaitzarik onenetakotzat jotzen dugu, oztupoak izan ditugun arren.

Hasieran genuen arazoa izan zen **ez genuela Garapenerako Lankidetzan espezializatuta ze goen inor**, ezagutzen ez genituen zehaztasun teknikoak (proiektuak lantzea) eta teorikoak zituen esparrua zen, baina gure ahalmen handienetakoa izan denez gero, gure egoitza guztiak Nazioarteko lankidetzan murgildu dira, eta Espainian lanarekin erantzukizun handia zuten boluntario-taldeak teknikoki zaila den esparru batean prestatzen hasi dira (baliabide propioekin eta elkarri lagunduz).

Honi gaineratu behar zaio Garapenerako Lankidetzan espezializatuta zeuden erakundeei kosta egin zitzaiela Triangulorekin parez pare lan egitea, Garapenerako Lankidetzako agente gisa onartuz, eta hori ez zen gertatu hasiera batean esparru horretan ez genuelako esperientziarik, baizik eta gure lana garatzen genuen esparruarengatik.

LGBT egoera mundu-mailan –baita gure herrialdean ere (inork lortu ditugun aurrerapenak beti hemen izan ditugula uste duen arren)– egungoaren desberdina zen.

Azpimarratzekoa da ere politikoki eragina izateko egin zen lana eta oraindik ere egin behar dena **Garapenerako Lankidetzarako politikak garatzen dituzten erakundeetako agendan sexu-aniztasuneko eta genero-identitateko ikuspegia duten proiektuei ekin beharra sartzearren**, politika sozial honetan oinarrituta –horrela ikusten eta defendatzen dugu Garapenerako Lankidetzaren ildo horretan, urte hauetan guztietan zehar aurrerapen handiak lortu ditugu; azkena, adibide bat jartzearren, Extremadurako LGBTei buruzko Legeak ildo horretan lan egin beharra bildu dezala, Lankidetzari lotuta politikak garatzen dituzten administrazioak ildo horretan ahaleginak egitera behartuz.¹

1 12/2015 Legea, apirilaren 8koa, Extremadurako Autonomia Erkidegoan lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen berdintasun sozialari eta sexu-orientazio eta genero-identitateagatiko diskriminazioaren aurkako politika publikoari buruzkoa. VIII KAPITULUA. Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren esparruko neurriak. 31. artikulua. Garapenerako nazioarteko lankidetzaren esparruko lankidetzaren Extremadurako Plan Orokorra eta urteroko planek LGBTI pertsonen bizitzarako, berdintasunerako, askatasunerako eta ez-diskriminaziorako proiektuak bultzatuko dituzte, sexu-orientazioa eta genero-identitatea edo -adierazpena direla medio legez edo sozialki eskubide horiek ukatzen edo eragozten diren herrialdeetan, eta pertsona horiekiko jazarpenen eta errepresalien aurkako babesa sustatuko du.

Triangulok ez ditu soilik arazo teknikoak zailtasunak izan, erresistentzia ideologikoekin lan handia ere egin behar izan baitugu. Jakin badakigu (baina ezin dugu frogatu) erakunderen batean aurkeztutako hainbat proiektuak hasiera batean puntuazio gorena lortu zutela (informazio hori ezagutzen genituen bertako teknikariek filtratu ziguten) eta balorazio teknikoaren ondoren guri ematekoak zirela, baina azken ebazpenean “bertan behera geratu zirela”. Erakunde hartako titular arduraduna oso kontserbadorea zen. Kasualitate hutsa ote?.....

Ziur aski ez. Indar kontserbadoreenak eta hainbat erlijioak lan handia egin dute Garapenerako Lankidetzaren bitartez esparru horretan lanik ez egiteko.

Espainiako estatuan orduraino **ez zegoen LGBT erakunderik Garapenerako Lankidetzaren esparruko lanik egin zuenik** sexu-aniztasunaren eta genero-identitatearen ikuspegitik, guk behintzat ez genuen inor ezagutzen.

Erreferentziarik ez izatea, eta LGBT kolektiboek badakigu zertaz ari garen hori adierazten dugunean, zaila da “esku artean” daukagunak gure erakundearekin zerikusirik ez duenean, batez ere formei dagokienez.

Baina eztabaida hori ezin dugu bazter utzi, eta hausnarketa egin beharra dago: **Zergatik ez daude Lankidetzan diharduten LGBT erakunde gehiago?**

Arrazoi bat ikusi dugu, zailtasun teknikoa alegia, baina hori nahi izanez gero gainditu daiteke, izan ere, VIHri buruzko aurrerapenetan egunean egoteko, adibidez, prestakuntza asko beharrezkoa baita, eta LGBT erakunde askok esparru horretan dihardute lanean.

Elkartasunaren sen handirik gabe gainditzeko zailagoa den beste arrazoi bat egon badago, hau da, erantzukizun ekonomikoa, finantzaizaileekiko erantzukizun ekonomikoa, proiektuen betearazpenean ez esku-hartzearen ikuspegitik –oinarrizko ikuspegia gure erakundearentzat–.

Azterketa hau beharbada beste erakunde batzuentzat handicap bihurtu da, lankidetzaren funtsak betearazteko konplexutasuna oso handia delako, eta edozein hutsegite, ez diru publikoa bidegabe erabiltzeagatik, baizik eta komunikazioko, kontzeptuko, justifikazio formaleko eta bestelako edozein hutsegite, itzuli beharreko diru kopuru bihur daiteke eta horrek erakundearen ahalmen ekonomikoa murriztu dezake.

Gure erakundearen arrisku horretaz jabetzen gara, baina “zer egingo diogu ba”? Garrantzitsua da, beharrezkoagoa, are premiazkoagoa iruditzen zaigu gure kideen beharrezko gure erosotasuna baino. Erosoena lankidetzarik ez egitea da. Triángulo Fundazioak ez du lankidetzarik “behar” erakunde gisa bizirauteko, gure diru-sarrera nagusiak Espainian egiten dugun jardueragatik eta jarduerarako lortzen baititugu; guztiz kontrakoak, lankidetzarik egingo ez bagenu, izango ez genukeen arrisku bat izango litzateke; eta orduan, zergatik? Benetan sinesten dugulako, gure eskubideen defentsa ezin delako mugatu herrialdeen arteko mugekin.

Guk ahalegina egiten dugu, eta horretarako modu estrategikoan lan egiten dugu arriskuak murrizteko, gure bazkideak diren erakundeekin dugun ezagutza- eta konfiantza-maila oso handia izan dadin. Horretarako oso baliabide gutxi ditugu, eta beraz, oso gutxitan bidali ditza-kegu misioak erakunde haiek ezagutzeko, eta are gutxiago kideren bat atzerrira bidaltzea ber-
tan lan egin dezan, eta horregatik lan handia egin behar dugu etengabeko harremana lortzeko, horixe baita benetan gehien aberasten gaituena.

Triángulorentzat erakunde kideekin lankidetzan jardutea ez da soilik proiektu jakin bat ku-
deatzea, izan ere, benetako konfiantza dugun erakundeekin urte osoan zehar egiten baitugu
lana, proiektu bat dagoenean eta proiekturik ez dagoenean. Informazioa trukaturaz, inor ha-
rantz joaten bada, oporretan bada ere, haiei bisita eginez, materialak, albisteak, dokumentuak,
argudioak, begiradak eta abar trukaturaz.

Eremu horretan lan egiteko arazo asko daude, GGKE guztiek izan ditzaketenen oso antzekoak,
erakunde horiek ere presioa sentitzen dutelako, era berean gatazkak sor ditzaketen hutsegi-
teak egon daitezke, proiektatu denaren eta egin denaren arteko diferentziak, zailtasun buro-
kratiko eta administratiboak, eta abar. Edozein erakunderen egunerokoa, desberdintasunen
batekin: Lan-eremuak askotan eskatu digu eta eskatzen digu “aurrez aurre” garapenean alian-
tzarik onena izatea, garapenerako estrategia guztien oinarria dena: **herritarren gehiengoa**.

4. Esku hartzeko estrategiak eta ikuspegiak

Azpimarratu behar da laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran eta mende berriaren
hasieran LGBT eskubideekiko eta Garapenerako Lankidetzarekiko egoera mundu-mailan
egungo egoeraz oso bestelakoa zela, gure herrialde barnean nahiz kanpoan. Beharbada bila-
kaera inperfektua izan da (lege-aurrerapenak ez dira beti jendearentzat nabarmenak izaten
eguneroko bizitzan), baina lan egin dugun herrialde askotan LGBT pertsonentzako despenali-
zazioa eta zuzenbide positiboan izandako aurrerapena azpimarratu nahi ditugu, duela hamar-
kada bat pentsaezinak zirelako, eta hainbat kasutan horiek amesten ere ausartzen ez ginelako.

Lehen hamarkadan batez ere gaztelaniaz hitz egiten zuten herrialdetan lan egin genuen, Er-
dialdeko Amerikan eta Hego Amerikan; hurbiltasun kulturalak, eta hizkuntza bera hitz egi-
teak, besteak beste, baita baliabide mugatuak izateak ere, Triánguloren lanak ahalegin guztiak
harantz bideratzea eragin zuten.

2007az geroztik aurrerapauso bat eman genuen Saharaz azpiko eta Magrebeko erakundeeki-
ko hurbiltetan, lasaitasunez eta zuhurtziaz baina ilusioz eta gogoz beteta aurre egin diogun
erronka, han ere lan egin behar genuela uste genuelako.

Triángulo Fundazioak Garapenerako Lankidetzan esku hartzeko estrategiak garatu eta eguneratu ditu. Asko ikasi dugu esperientziaren, lan egiten dugun erakundeen, eta izandako gizarte- eta lege-aldaketen ondorioz, eta lan hori etengabe aldatzen ari da, baina azpimarratu behar dugu Triángulo Fundazioaren ibilbide osoan zehar honako ikuspegi hauekin lan egin dugula:

4.1. Tokiko LGBT erakundeen eta aktibisten protagonismoa

Gure uste azpimarratu beharrekoa den ikuspegi batekin lan egiten dugu: tokiko erakundeak, tokiko aktibistak dira landu behar diren errealitateak identifikatu ditzaketenak, eta esku hartzeko estrategiak diseinatu eta garatu ditzaketenak. Gure erakundea bidelagun izan dezakete, gure esperientziak partekatuz, inoiz erreferentzia gisa baliagarriak izan daitezkeelako, baina gure testuingurua, gure errealitatea, gure prozesuak, gure abiapuntuak eta gure helburuak ez dira zergatik partekatu behar, eta are gutxiago estrapolatu edo transferitu behar.

Ikuspegi hori ez dute guztiok aplikatu Lankidetzaren edozein eremutan, ezta Triángulok lan egiten dugun eremuan ere ez –eta beharbada denok ezagutzen ditugu proiektuak “esportatzeko” jardun txarrak–.

4.2 Giza eskubideen ikuspegia

Gure helburu nagusia, baita gure ekintzena ere, giza eskubideen aintzatespena eta haiekiko konpromisoa izan da.

Ikuspegi horrekin pertsona guztiak **eskubideen titular gisa** identifikatzen ditugu (guk LGBT pertsonen giza eskubideak aintzat hartzeko lan egiten dugu), genero-identitate guztien eta sexu-aniztasunaren aintzatespena helburu izanik.

Erakunde publikoak, botere betearazleak, eta funtzio legegilearen organo titularrak eta justizia-administrazioak dira betebeharren titularrak, eta noranzko horretan bideratu ditugu gure ekintza eragileak, hainbat eremutatik beren betebeharrak bete ditzaten exijituz: herritartasun-eskubideen aintzatespena, kasu askotan ordenamendu juridikoetan bildutako diskriminazioen amaiera, aniztasunaren onarpenera politikaren esparru zabalean –hezkuntza, sanitatea, enplegua, zerbitzu publikoetarako sarbidea, norberaren identitaterako eskubidea eta abar biltzen dituzten arloetan–.

Eskubideen Ikuspegi horretatik LGBT pertsonen eta erakundeen ahalmena indartzeko lan egin dugu, eskubideen titularrak diren heinean, eskubide horiek aldarrikatzeko, eragina izateko ezinbesteko lana ahaztu gabe, betebeharren titularrek beren betebeharrak bete ditzaten.

Hori defendatzea ez da erraza izan beti, ez baitugu ahaztu behar Eskubideen titulartasuna LGBT pertsonentzat beti “imajinatu” egin behar izan dela, Giza Eskubideen Gutunaren 2. ar-

tikuluan² agertzen den “beste edozein arrazoi” horren zati ginelako, eta arauzkoak ez diren identitateak eta orientabideak zigortzeko legeriak izan dituzten eta egun dituzten Estatuak hori baliatu dute pertsona haiek baztertzeko, baita bazterretatik baztertzeko ere.


2007an Yogyakarta Printzipioak aurkeztu ez ziren arte ez zen espezifikoki lan egin ildo horretan.

Eta ia 18 urte igaro ondoren oraindik ere galdetzen digute sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia duen Garapenerako Lankidetzaren bitartez esku hartzea beharrezkoa ote den, legezko babesari dagokionez aurrerapenik handienak izan dituzten herrialdeetan ere, eta guk pentsatzen jarraitzen dugu erantzuna BAI borobila dela.

Azpimarratu behar da Homofobia, Lesbofobia eta Transfobia gorroto-modurik hedatuenetako bat direla, munduko herrialde gehienetako legerian isla izan dutelako edo egun dutelako, gay, lesbiana eta transexualentzako arau diskriminatzaileak ezarriz.

Eta ezin dugu ahaztu Lesbiana, Gay, Bisexuala edo Transexuala izatea **zigortuta dagoela, zigor ekonomikoetatik hasi eta biziarteko espetxe-zigorrarekin amaituz munduko 75 estatutan eta 5 eskualdetan, eta HERIOTZA-zigorrarekin 6 estatutan (Mauritania, Yemen, Afganistan, Pakistan, Saudi Arabia eta Iran) eta Nigeria eta Somaliako hainbat eskualdetan (eta Iraken estatukoak ez diren hainbat talderen bitartez).**

2 2. artikulua: Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarte-jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik. Ez zaio begiratuko gainera, pertsona zein herrialde edo lurraldetakoa den; ezta hango politikari, legeei edo nazioarteko egoerari, nahiz eta herri hori burujabea izan, besteren zainpeko lurraldea, autonomia-rik gabea edo nola-halako burujabetasun-mugak dituena.



Errealitate hori aldatzea ere gure erantzukizuna da, berdintasuna pertsona denontzako da edo bestela ez da, eta Triángulo Fundazioak munduko hainbat lekutako kideekin batera lanean jarraituko dugu, haiek baitira mundu osoko LGBT pertsonen Giza Eskubideen babesean aldatketak eta aurrerapausoak lortzeko benetako protagonistak.

**NASIJ-
ISLAMOFIARIAREN
AURKA ETA
ISLAM INKLUSIBO
ETA QUEER
BATEN ALDE**

Daniel Ahmed Said

Nasij

www.facebook.com/Nasij-1487428971539744

Sare berri baten jaiotza

Nasij (arabieraz: ehuna edo egindura) egoitza Bartzelonan duen proiektua da, baina estatu espainiarrean hedatuta dago, islamofobiaren aurka borrokatzeko eta elkarrizketaren bitartez islamaren ikuspegi inklusiboa sustatzeko baliagarria izango den sare fisiko eta birtual gisa sortua, hori guztia ikuspegi deskolonizatzaile, interseksional eta feministarekin, baita queer ikuspegiarekin ere.¹

Ekimena 2012. urteaz geroztik ari ginen mamitzen, eta 2014. urtean pertsona-talde askotariko batek —sexu-aniztasunaren eta genero-aniztasunaren gaia gai espiritual eta/edo erlijiosoarekin gurutzatzeko interes komunarekin— RIQE proiektua (Red de Inclusión de lo Queer en las Espiritualidades) eratzea erabaki genuen.

Lehen unetik ezaugarri horietako sare bat bideratzeko zailtasunak izan genituen, eta azkenik proiektuak —jadanik Nasij izenarekin— espiritualitate islamikoa oinarritzat hartu zuen, ordu-raino estatu espainiarraren barruan inolako antolaketa-egiturarik edo erakunde-babesik ez zuen kolektibo baten beharrezanean erantzuna eman.

Nasijen uste dugu premiazkoa dela islamari lotutako sexu- eta genero-aniztasunari buruz hitz egitea, gaur egun musulmanak diskriminatzeko egiten diren hainbat diskurtso eta estrategia justifikatzeko erabiltzen diren okerreko irudi eta estereotipoz betetako gai hori argitzeko asmoz. Premia hori proiektuaren jardun-ildo nagusietan islatzen da:

- Islamari lotutako sexu- eta genero-aniztasunaren inguruko aurreiritzi nagusia, hau da, islamaren postulatuei atxikita dagoen eta, ondorioz, musulman guztiei estrapolatzeko modukoa den ideologia matxista eta LGBTIQfobikoaren ustezko existentzia desagitea.
- Jendea ohartaraztea islamofobia handitzen ari dela, eta egungo diskurtso islamofobo europarra gero eta gehiago instrumentalizatzen ari dela diskurtso feministak eta LGBTIQ+ eskubideen aldekoak musulmanak kriminalizatzeko, adibidez homonazionalismoaren edo pinkwashing estrategien bitartez.
- LGBTIQ+ kolektiboen barnean —eta kanpoan— askatasun erlijioso eta/edo espiritualerako askatasunari buruz sentsibilizatzea, era horretan egun nagusi den teofobiaren aurka borrokatuz.
- LGBTIQ+ musulmanen aktibismo- eta erresistentzia-estrategiak ikusgai jartzea.

¹ Nasiji buruzko informazio gehiago lortzeko, kontsultatu kolektiboaren Facebookeko orria: <https://www.facebook.com/Nasij-1487428971539744/?fref=ts>

- Musulmanen arteko elkarrizketa bultzatzea sexu- eta genero-aniztasunari dagokionez, dimentsio espiritualaren arabera artikulatuz edota dimentsio horretatik bereiziz artikulatuz.

Bost jardun-ildo horiek gurutzatzen dituzten funtsezko bi ekintza-estrategia daude. Alde bate-tik, arreta ekintzen gainean jarri beharra, eta ez hainbeste kolektiboa osatzen duten pertsonen ikusgaitasunean. Nasij egitura horizontal bat bezala planteatzen da, zuzendaritzarik eta ahots nagusirik gabe. Bestetik, aliantzak egitea gure ekintza-esparru globalaren barnean dauden eta elkarrizketaren eta aldarrikapen inklusibo eta intersektionalaren garrantziarekin bat datozen kolektibo, ekimen eta/edo pertsonekin: feminismoak, LGBTIQ+ kolektiboak —sekularrak eta/edo erlijiosoak—, musulmanen kolektiboak, islamofobiaren aurka borrokatzeko kolektiboak, esparru akademikoa, eta abar.

Esparru horren barnean, orain arte askotariko jarduerak egin dira: hitzaldiak, konferentziak, prestakuntza-ikastaroetan parte hartzea, nazioarteko topaketetan parte hartzea, edukiak hedatzea, parte-hartze instituzionala, proiektuetarako aholkularitza, eta abar.

Gaur egun aurrez aurre ditugun oztopo nagusiak honako hauek dira:

1. **Gaur egungo diskurtso islamofoboa**
2. **Gizarte mugimenduen barnean dagoen teofobia**
3. **Musulmanak diskriminatzeko eta kriminalizatzeko estrategiak.**

1. Gaur egungo diskurtso islamofoboa

Islama gaur egun Europan dagoen arazo moduan ikustea, jatorria Erdi Aroan duen eta azken hiru mendeetako diskurtso orientalista zeharka gurutzatu duen eta gaurdaino ideologia isla-mofobo moduan iritsi den etsaitasun-sentimenduak sortzen du, ideologia hori eremu politiko eta akademikotik eta masa-komunikabideetatik hedatzen baita.

Pertzepzio hori, elkarren artean babesten eta indartzen diren bi premisaren inguruan dabil. Alde batetik, jatorri greko-judu-kristaua duen identitate europar baten presuntzioa, non isla-ma —ekialdeko alteritatea, exogenoa eta immigrazioari lotutakoa den heinean— ez den onar-tzen. Bestetik, islama, definizioz, modernitateari esleitzen zaizkion balio demokratikoen aur-kako anakronismo bat bezala ikustea.

Islamofobia hitzari dagokionez, 90eko hamarkadaren hasieran hasi zen haren erabilera oro-kortzen. Hitz hori Oxford English Dictionary hiztegiari 1997. urtean erantsi zitzaion “Isla-mophobia, a Challenge For Us All” txostenaren ondorioz; Runnymede fundazioak urte hartan argitaratu zuen txosten hori Erresuma Batuan. Txosten hartan aurkeztu zen islamofobiaren definizioak ez zuen orain arte aipatu dugun etsaitasun-jarrera hura soilik aipatzen, izan ere, —eta bereziki— etsaitasun haren ondorio praktikoak aipatzen baitzuten, pertsona eta komu-

nitate musulmanen aurkako diskriminazio bidegabean eta pertsona eta komunitate haiek gai politiko eta sozial nagusietatik kanpo uztean islatzen ziren ondorioak, alegia.

Aurrerago, homonazionalismoaren eta pinkwashinaren gaia aztertzerakoan, ikusiko dugun bezala, egungo diskurtso islamofoboaren gorakadak lotura estua du terrorismoaren mediatizazioarekin, kontinente europarraren barneko migrazio-errealitatearekin, edo errefuxiatuen “krisiarekin”, eta hainbat boteregunetatik sustatzen dute Estatuak egiten duen kolektibo jakin batzuen kontrola justifikatzeko.

2. Gizarte-mugimenduen barnean dagoen teofobia

Espainiako estatuko gizarte-mugimendu nagusien barnean sekularismorako joera —eta hainbat kasutan ageriko teofobiarako joera— dagoela egiazta dezakegu. LGBTIQ+ kolektibo sekularrei dagokienez, ideologia anakronikotzat, arauzkoak ez diren sexu-orientazioen eta/edo genero-identitateen bizipenaren aurkakotzat eta harekin bateraezintzat jotzen dute erlijioa. Aztergai dugun kasu honetan, islam LGBTIQ+fobiko baten presuntzio hedatu eta mediatizatuak, LGBTIQ+fobiaren beste tradizio eta kultura batzuekiko zeharkakotasuna alde batera uzteaz gain, pertsona eta kolektibo LGBTIQ+ musulmanen presentzia ikusezin bihurtzen du.

Presuntzio hori bi premisaren inguruan artikulatzen da:

- Zibilizazio Arabiar-Islamdarraren historian arauzkoak ez diren sexu-orientabideak eta genero-identitateak ez direla existitu.
- Islamaren postulatuei atxikita dagoen eta, ondorioz, musulman guztiei estrapolatzeko modukoa den ideologia matxista eta LGBTIQ+fobikoa dagoela

Nasij proiektuan ulertzen dugun bezala, onarpen horiek esentzialistak dira eta diskurtso islamofoboa sustatzen dute hainbat arrazoiengatik:

Lehenik, islamari lotuta LGBTIQ+ siglak bezalako kategoria homogeneizatzaileak erabiltzeak —kontinente guztietan banatuta dauden 1700 milioi pertsona baino gehiago barnean hartzen dituen tradizio espiritualak—, kategoria horren jatorria den kulturen ez dauden eta arauzkoak ez diren sexu-orientazio eta -praktika eta genero-identitate eta -adierazpen asko modu nabarmenean murrizten ditu.

Bigarren, ideologia matxista eta LGBTIQ+fobikoa ez dago islamaren printzipioei atxikita, izan ere, tradizio horri buruz egin diren interpretazio patriarkal eta misoginoen emaitza baita. Ildo horretan, sistema politiko, gobernu, gizarte eta pertsona matxista, patriarkal edo LGBTIQ+fobikoei buruz hitz egin dezakegu, “islamikoa” etiketak —edo katolikoa, budista eta abar— ez du gehiengo musulmana duten herrialdeetan bizi diren —musulmanak izan ala ez— LGBTIQ+ pertsonen esperientziei edo egoera sozial eta juridikoari buruzko informaziorik gaineratzen,

ezta islama minoritarioa den herrialdeetan bizi diren LGBTIQ+ musulmani buruzko informazioerik ere.

Hirugarren, gehiago musulmana duten herrialdeetan LGBTIQ+ kolektiboaren legezko egoerari dagokionez baiezta oker bat agerian uzten duten heinean, bereziki sexu bereko pertsonen arteko harreman adostuen kriminalizazioari dagokionez. ILGAren² (International Lesbian, Gay, Bisexual, Trans and Intersex Association) azken datuen arabera, gaur egun 75 herrialdek kriminalizatzen dituzte sexu bereko pertsonen arteko harreman adostuak —ez sexu-orientazioa eta/edo genero-identitatea—. 75 herrialde horietatik 26k gehiago musulmana dute. 26 horietatik 8 herrialdek bakarrik kondenatzen dituzte praktika horiek heriotza-zigorrekin, eta 5ek bakarrik gauzatzen dute: Saudi Arabia, Iran, Mauritania, Sudan eta Yemen. Harreman horiek kriminalizatzen dituzten gainerako 49 herrialdeek gehiago kristaua, hinduista, budista edo bahaista dute, eta, Errusia izan ezik, gutxitan aipatzen dituzte: Errusia, Lituania, Ukraina, Moldavia (Europa), Botswana, Burundi, Kamerun (Afrika), India, Sri Lanka (Asia), Samoa (Ozeania), Jamaika, Barbados (Amerika). Era berean, ezin dugu ahaztu sexu bereko pertsonen arteko harreman adostuak kondenatzeko araudi gehien jatorria kolonizazioa eta oso moral biktoriar zorrotzean murgilduta zegoen Europatik zetozen legeen ezarpena direla.

3. Musulmanak diskriminatzeko eta kriminalizatzeko estrategiak

Une honetan, non islamarekiko etsaitasuna handitzen ari den, bistan da etsaitasun hori gauzatzen den moduak generoarekiko orientabide argia duela. Egungo diskurtso homofobo europarraren zati handi bat diskurtso feministak eta LGBTIQ+ eskubideen aldekoak jende musulmana —eta beste gutxiengo etniko batzuk— kriminalizatzeko baliatzen den instrumentalizazio-estrategian dago oinarrituta; kriminalizazio hori estrategia diskriminatzaile eta arrazisten bitartez gauzatzen da, adibidez homonazionalismoaren edo pinkwashinaren bitartez.

- **“Homonazionalismotzat”** jotzen dira, posizio kontserbadoreetatik jarrera —eta politika— arrazistak, xenofoboak eta nazionalistak babesteko instrumentalizatzen diren politika feministak eta LGBTIQ+ eskubideen aldekoak. Europako hainbat lekutan belo integralaren debekuak emakumeen janzkera kriminalizatzen du ustezko askatasun indibidual baten mesedetan, baina aldi berean askatasun hori ukatu egiten da hainbat gairi dagokionez, adibidez abortua, soldata-berdintasuna edo indarkeria matxistaren aurkako babesa. Errefuxiatuentzako “jokabide-gidak” argitaratzeak, Austriako Barne Ministerioak aurten abian jarri duena bezalakoak, ezjakin, intolerante, gizalegearen kontrako eta LGBTIQ+fobiko gisa ikusten eta irudikatzen dituzten errefuxiatuekiko nagusitasun nazionala auresuposatzeaz

2 Informazio gehiago lortzeko, kontsultatu elkartearen webgunean: <http://ilga.org>

gain, pertsona horiek bi ardatzetara mugatzen ditu —“musulmantasuna” eta heterosexua-
litatea—, bazter utziz pertsona horietako batzuk beharbada ez direla musulmanak eta/edo
LGBTIQ+ kolektiboaren barruan daudela.

- **“Pinkwashing”** adiera, normalki, Palestinako biztanleen Giza Eskubideen urraketa siste-
matikoari dagokionez Israelgo estatuak egiten duen irudi-garbiketa aipatzeko erabiltzen
da. Kasu honetan, Israelgo estatua gay “friendly” lurralde bat bezala proiektatzen da, eta
era horretan Ekialde Ertaineko LGBTIQ+ pertsonak —baita hortik kanpokoak ere— Israel-
go estatuarekin identifikatu ahal izango dira eta politika islamofobo jakin batzuk babes-
ten amaitu dezakete. Kasu honetan, bazter uzten da “paradisu” hori soilik pertsona jakin
batzuentzako erreserbatuta dagoela irizpide arrazistak, xenofoboak eta baztertzailak —
klasearen, etniaren edo nazio jakin batekoa izatearen arabera— kontuan izanik, eta era
berean politika horiek Palestinako LGBTIQ+ biztanleen gainean eragindako zapalkuntza
bazter uzten da.

Aktibismo queer musulmaneko nazioz gairikoa - Islam queer

Diskriminazio eta kriminalizazioko testuinguru islamofobo horretan, azken bi hamarkadetan
LGBTIQ+ kolektiboko aktibista musulmanak agertzeak agerian utzi du premia hori dela isla-
maren barnean erreforma-mugimendu progresibo bat sortzea, eta aktibismo queer musulma-
neko nazioz gairikoa —Islam queer— horren adibide argienetako bat da.

Islam queer ez da soilik hermeneutikako eta islamaren iturri klasikoaren —Korana, hadizeak
eta fiqh— berrinterpretazio kritikoko ariketa bat, LGBTIQ+ musulmanek garatzen dutena fede
musulmanaren ikuspegi inklusiboa eta queer sustatzeko xedez, indibidualki edo gizarte mai-
lan beren sexu-orientabideekin edo genero-identitateekin bateragarria den ikuspegi, alegia.
Islam queer hainbat gai zalantzan jartzeko eta erresistentziako mugimendua ere bada:

- Islamaren interpretazio misogino eta patriarkaletatik datozen diskurtso LGBTIQ+fobikoak.
- “Mendebaldeko” diskurtso hegemonikoak sekularismoari, islamofobiari eta sexu- eta ge-
nero-aniztasunari buruz

Ildo horretan, islam queer proiektuaren azterketak aukera ematen du gaurkotar europar-
rari lotuta dauden —eta islamarekin duen harremanaren esklusiboak ez diren— hainbat auzi
agerian eta zalantzan jartzeko, hala nola:

- Sekularismoa eta adierazpen-askatasuna.
- Gutxiengo etniko, sexual eta erlijiosoaren eskubideen urraketa.
- Arauzkoak ez diren sexualitatearen eta genero-identitatearen politizazioa eta kriminalizazioa.

Islam queer proiektuak bere baitan alderdi teorikoagoa, eremu akademikoan oinarrituta dagoena eta emaitza gisa literatura oso espezifiko eman duena, borroka eta erresistentziako beste alderdi aktibista batekin konbinatu du, hainbat jatorriko nazioz gaindiko sareen bitartez eratua: Merhaba (Alemania), Bedayya (Egipto – Sudan), Maaruf (Herbehereak), The Inner Circle (Hegoafrika), Al Fatiha (AEB), Iman / Safra Project (Erresuma Batua), Sisters in Islam (Malaisia), Aswat (MENA), Al Qaws (Palestina), Mawjoudin (Egipto), Salaam Queer (Kanada) edo Nasij bera estatu espainiarrean.

Aliantza berriak erresistentzia-estrategia gisa

Nasij proiektuaren bitartez —edo islam queer gisa izendatu dugunaren barruan bildutako edozeinen bitartez— garatutakoa bezalako ekimenak egitea, eragiten ari da hasieran aipatu ditugun kolektibo, ekimen edo pertsona askok —feminismoak, LGBTIQ+ kolektiboak —sekularrak eta/edo erlijiosoak—, musulmanen kolektiboek, islamofobiaren aurka borrokatzeko kolektiboek, eremu akademikoak eta abar— euren sinesmen baztertzailenei —ala ez— aurre egin behar izatea, eta euren sorkuntza-diskurtsoak, planteatzen dituzten aldarrikapenen mota eta aldarrikapenak gauzatzeko egiten diren ekimenak berriro planteatu beharra ikusten dute.

Estatu espainiarraren kasuan, zehazki Katalunian, 2015eko ekainaren 28an egin zen “Manifestació per l’Alliberament LGTBIQ+” izeneko manifestazioan LGBTIQ+ harreman ez-monogamoen aldeko kolektiboaren eta Nasij proiektuaren artean egindako aliantza, eta urte bereko otsailaren 20an “Fòrum Social contra la islamofòbia i tota mena de racisme” izeneko Forumean Islamofobiaren eta Generoaren mahaiaren eraketa —LGBTIQ+ kolektibo musulmanaren presentzia argiarekin—, erresistentzia-ikuspegi berri baten bi adibide dira, ñabardura elkarrizketan, inklusioan eta interseksionalitatean jarritz, eta gure inguruko gizarte-mugimenduen ibilbidean muga argi bat ezarritz.

**“VENIR AL SUR/
ZATOZTE
HEGOALDERA”,
LATINOAMERIKAKO
ETA KARIBEKO
LESBITRANSINTER
TOPAKETA
FEMINISTAK**

Rosa María Posa Guinea

Venir al Sur

www.veniralsur.org

1. Aurkezpena	63
2. Nola sortu ziren “Venir al sur” lesbitransinter topaketa feministak?.....	63
3. Ez gara zatitzen, ugaldu egiten gara.....	64
4. Zer nahi genuen?.....	65
5. Lehen topaketara iritsi arteko prozesua.....	65
6. Nola egingo genuen hori guztia?.....	67
7. Gure edukiak	68
8. Kalea, garrantzizko tokia.....	72
9. Nor gara?.....	72
10. Finantziazioa.....	73
11. Erronkak.....	73
12. Egileen iritzia.....	73

1. Aurkezpena

“Venir al sur” lesbitransinter topaketaren ekimena 2010an hasi zen abian. Latinoamerikako eta Karibeko topaketa feministetan eta lesbiko feministetan trans pertsonak sartzeari buruzko eztabaidak ditu aurrekaritzat.

“Venir al sur” izeneko proposamena Kolonbian, Txilen, Perun, Costa Rican, Mexikon, Uruguain, Argentinan, Nikaraguan, Dominikar Errepublikan, Brasilen eta Paraguain antolatutako hainbat talderen eskutik sortu da. Anatomietatik haratago doan feminismoa proposatzen du “Venir al sur” ekimenak. Rafaela Carráren abesti famatua hartzen du abiapuntu, umorezko eta maitasunezko erantzun baten antzera: saminak arindu eta fribolitateetan sakondu behar delako.

Gure helburua da *“gorputzetan, desiretan eta geografia sortzaileetan barrena gabiltzan hainbat feminista biltzea, hegoaldeko ikuspegi feminista batetik des-eraikitzeko, partekatzeko, hausnartzeko, hitz egiteko eta estrategiak sortzeko, arteen, maitasunen, plazeren, pentsamenduaren, hitzaren eta ospakizunaren bitartez, sistema binario heteronormatibo eta patriarkala desmuntatzeko bidean”*.¹

“Venir al sur” ekimenak honako printzipio metodologiko hauek dauzka, besteak beste: *plazera, topaketa, subertsioa, sormena, askatasuna, espresioa, malgutasuna, horizontaltasuna, diferentziak ospatzea, askotariko trukeak, ekintza eta sorkuntza kolektiboa, kulturarteko elkarrizketa, mugimendu feministen arteko elkarrizketa, errespetua*”.

“Venir al sur” ekimenaren lehen edizioa Asunciónen antolatu zen, Paraguain, 2012. urtean, bigarrena San Josén, Costa Rican, 2015ean, eta hirugarrena Mexikon izango da, 2018an.

2. Nola sortu ziren “Venir al sur” lesbitransinter topaketa feministak?

Aurrekariak:

Feministen elkargune kopurua handitzeko premia sortu ziren “Venir al sur” lesbitransinter topaketa feministak. Eta aurrera jarraitu baino lehen, elkargune feministak eta mugimendu feminista berezi nahi ditut hemen, azken horrek egunero jarduten duelarik herrialde guztietan. Topaketak ez dira eguneroko kontua, ekintzei buruz hausnartzeko, elkartrukatzeko guneak baizik.

Horren harira zenbait gertaera nagusi ekar ditzakegu gogora:

- Latinoamerikako eta Karibeko Topaketa Lesbiko Feminista, Mexikon, 2004. urtean. Ekuadorreko, Argentinako, Paraguaiko eta beste herrialde batzuetako zenbait lesbiana feminista ahalegindu ziren trans lesbiana feministak ere beren elkargunera ekartzen, baina gaiari buruzko eztabaida pizteko ahalegin hori ustel gertatu zen.

1 www.veniralsur.org

- Latinoamerikako eta Karibeko Topaketa Feminista, Ohian Beltza, Sao Paulo, 2005. Lohana Berkins ekintzaile trabesti feminista argentinarrak² izena eman zuenez, antolaketa-batzordeak erabaki zuen erabakia topaketaren batzarrean hartzeko, legitimitatean irabazteko. “Trans feministak” edonon onartzea izan zen topaketaren eztabaidagai nagusietako bat. Azkenean proposamenak botazioa irabazi zuen, eta 2009. urtean Mexikon antolatu zen hurrengo topaketan 15 trans feministak parte hartzeko aukera izan zuten (guztira 1.500 parte-hartzaile izan zituen topaketak, gutxi gorabehera).

Trans pertsonak parte hartzearen aurka zeudenek emakumeentzako soilik diren guneak gorde nahia argudiatu zuten, besteak beste. Gaur egun zisemakumeak esango genieke, baina garai hartan hori guztia ongi zehaztu gabe zegoen oraindik ere.

Kontinenteko eta Karibeko topaketa feministetan trans emakumeen parte-hartzeari atek ireki zizkieten bitartean, Txilen, 2007an lesbiko-feministek ez zuten eztabaida planteatu, eskaerak izan ziren arren, baina Guatemalan bai, eztabaida bizia sortu zen 2010ean, eta gune berriak ireki beharra mahaigaineratu zen. Topaketa hori hasi zenean proposatu nahi genuen hurrengo edizioa Asunciónen antolatzea, Paraguain, eta horregatik “Para hacer bien el amor hay que venir al sur/Maitasuna ongi egiteko, zatozte hegoaldera” kantatzeari ekin genion, 70eko hamarkadako kantari eta vedette italiar Rafaela Carráren kantua gogora ekarriz, kantuaeren testuari zentzu libertarioa emateko eta “benetako ikono” feministekin txantxetan aritzeko asmoarekin.

3. Ez gara zatitzen, ugaldu egiten gara

“Venir al sur” Latinoamerikako eta Karibeko topaketa lesbiko feministetan sortu zen, eta beraz proposamena sortzea ekarri zuen espazioa hartu zuen aintzat. Ez genuen historia ezabatu nahi, une hartan kokatu baizik, edonoren borrokak aurrekoen borrokarik gabe ez lukeela zentzurik izango aintzat hartuta. Aurreko borrokalari horiek guztiak gogoan ditugu betiere, topaketak antolatzen hasi ziren Latinoamerikako feminista guztiak, bidea urratu zuten lesbiana feministak, gune guztietan beren tokia egin zuten trans feministak, beste era batera pentsatu eta aldatzen direnak, aldatzen ez direnak, sailkatzeko ahalegin automatikoari aurre egiten diotenak, borrokatu zirenak, eta, Chulai Lamaren hitzetan (Las Reinas Chulas³ antzerki-taldeko pertsonaia bat), “den-denak, edonolakoak direla ere” (“a todas, a todos, a todes y a todus”, jatorrizko gaztelaniazkoan).

2 Lohana Berkins 2016ko otsailaren 5ean hil zen.

3 Las Reinas Chulas, Mexico DFko kabaret-antzerkiko taldea.

4. Zer nahi genuen?

- “Gela propio” identitario baten premia irten.
- Erdigunea eta periferiak hankaz gora jarri.
- Feminismoak pluralizatu.
- Generoen hierarkia desegin.
- Emakumea-gizona binariotik aldendu.

5. Lehen topaketara iritsi arteko prozesua

Trans lesbiana feministak lesbiana feministen topaketetan sartzeko eskakizunetik hain askotarikoa den gune bat bultzatzera bitarteko bidean zenbait urrats egin ziren, 2010etik hasita eta 2012ra bitarte.

2003az geroztik topaketa nazionalak antolatzen ari ginen Paraguaiko feministontzat inklusioaren eztabaida soberan zegoen, guk inklusioa betidanik hartu dugulako aintzat, hau da, guretzat feminismoaren proposamenak gizarte osoa hartzen duelako eraginpean, pertsonen anatomia edozein izanik ere. Paraguaiko topaketa feministak joan nahi duen jende guztiarentzat irekita egon dira beti. Inork ez gaitu inbaditu. Eta zer esanik ez nazioarteko topaketa batean.

Hainbat herrialdetako lagunek bat egin zuten ikuspegi horrekin, eta horrela identitate-zerrenda ospetsuak sortu ziren: lesbianak, bisexualak, pansexualak, trans gizonak, trans femeninak, trabestiak, transexualak, transgeneroak, transgeneristak, heteromalguak, heteronahasiak, bi-beldurtiak, lesboasmodunak eta beste hainbat gehiago.

Urtebetez batzordetan antolatuta jardun genuen bilera birtualak eginez, lehen eta bigarren topaketetan.



Hortik abiatuta, topaketaren helburu orokorra zehaztu genuen:

Gorputzetan, desiretan eta geografia sortzaileetan barrena gabiltzan hainbat feminista biltzea, hegoaldeko ikuspegi feminista batetik des-erakitzeke, partekatzeko, hausnartzeko, hitz egiteko eta estrategiak sortzeko, arteen, maitasunen, plazeren, pentsamenduaren, hitzaren eta ospakizunaren bitartez, sistema binario heteronormatibo eta patriarkala desmuntatzeko bidean.

Eta honako helburu espezifiko¹ hauetan zehaztu genuen:

1. LesBiTransInter antolaketa-estrategiak eta aliantza feministak sortzea, koordinaziorako, talde-lanerako eta trukerako gune pluralak irekiz, feministen eta topaketan parte hartzen duten erakundeen arteko antolamendu afektibo, efektibo eta politikoa eta posizionamendu politikoa ahalbidetzeko eta tokiko, nazioko eta eskualdeko eguneroko esparru pribatu eta publikoetan eragiteko.
2. Topaketaren esparruan gure herrialde eta komunitateen gizarte-errealitateak partekatzea, eta, ildo horretan, hainbat ekintza ituntzea, gure eskualdeetan eskubide guztiak defendatu, exijitu eta baliatzeko, eta Latinoamerikako eta Karibeko egungo agenda feministan aurrera egiteko, eraldatzeko bidean dauden testuinguru soziopolitiko eta ekonomikoetan.
3. Mota guztietako feministek protagonismoarekin, sormenarekin, askatasunarekin, afektibitatearekin eta plazerarekin parte har dezatela lortzea: lesbianak, tortillerak, kotxonak, kamioilariak, fem, bisexualak, bikuriosoak, mari-mutilak, emakume transexualak, transgeneroak, trabestiak, trans, trans gizonak, txongoak, karishinak, zapatao, lesbomalguak, bigeneroak, pansexualak, trans pertsonak, ageneroak, androginoak eta intersex, trans maskulinoak, trans femeninoak edo jarrera politikoen jarraitzaileak, esperientzia eta praktikak dituzten feministak, identitate-aukera ugarien ordezkari izaki egunero-egunero heteronormari eta genero-indarkeriari aurre egiten diegunak, Latinoamerikatik, Karibetik eta Paraguaiko hainbat departamentutatik etorritakoak.
4. Genero-sistema binario, heteronormatibo eta patriarkala desmuntatzeko estrategia eta ekintzak partekatu, ikasi, eztabaidatu eta sortzea; izan ere, askotariko zapalketekin gurutzatuta, besteak beste oinarrian klasea, arraza, etnia, adina, gizarte-jatorria, gaitasuna, sexu-orientazioa eta genero-nortasuna duten zapalketekin gurutzatuta, gure herrialde guztietako bizitza eta gorputzak bortxatzen ditu sistema horrek.

4 Helburu hauek www.veniralsur.org webgunean daude jasota, 2012ko eta 2015eko topaketei buruzko metodologiarekin eta beste hainbat informazioarekin batera. Adostutako testuak direnez, hitzez hitz ekarri ditut lerro hauetara, ezer ere aldatu gabe; gainera, jatorrizko hizkeran irakurtzeak merezi duela iruditzen zait.

5. Feminismoetako egungo subjektu politiko nagusiak gogoetara, elkarrizketara eta onespena ekartzea, baita Latinoamerikako eta Karibeko feminismoen galdeketa eta ekintzarako gune berrien adierazpen eta bizipenetara ere.
6. Hizkuntza eta iritzi guztiei balioa emango dien truke-eremu bat sortzea, non proposamen guztiak horizontaltasunean eta berdintasunean aztertuko diren, elkarrizketarako gune “tradizionalak” izan, edo gorputza mugituz eta ukituz elkartrukatzeko guneak, ikus-entzunezko hizkuntzaren bidez hitz egiteko guneak, arte-adierazpenak, objektu eta ekintzen eraikuntza kolektiboa, edo eztabaida, sormen eta trukerako imajina daitekeen beste edozein modu. Ekintza, borroka eta eraldaketarako LesBiTransInter modu feminista ugariei presentzia emanez, baina haietako bat ere “erdiguneko”, “nagusi” edo “bakar” hartu gabe.
7. Hainbat estrategia, jarduera eta ekintza garatzea gure Topaketa artea eta plazera gauzatzeko, gozatzeko, pentsatzeko, bizitzeko gune bihurtzeko, eta LesBiTransInter jardunbide feminista eraldatzaile gisa nabarmentzeko, mundua, gorputza eta desirak iraultzeaz gain Latinoamerikan eta Kariben hormarik gabeko feminismoei bide ematen dietenak.

6. Nola egingo genuen hori guztia?

Gune eraldatzaile bat sortuz, kalean elkarreaginak eragingo zituen topaketa ahalbidetuz, arteak eta kulturak bertan garrantzi handia izan zezaten, agian garrantzi nagusia, zokora baztertu beharrean. Artea ibilgailu eraldatzaile izango zuen gune bat.

Topagune bat, “aktibismoa” eta “artibismoa” gune publikoetan.

Feminismoa erdi-erdian jarriko duen topagune bat, hura pentsatzen duten gorputzak kontuan hartu gabe.

Eta hori guztia honako printzipio metodologiko hauen bitartez⁵: “Plazera, topaketa, subertsioa, sormena, askatasuna, espresioa, malgutasuna, horizontaltasuna, diferentziak ospatzea, askotariko trukeak, ekintza eta sorkuntza kolektiboa, kulturarteko elkarrizketa, mugimendu feministen arteko elkarrizketa, errespetua”.

5 <http://veniralsur.org/encuentro-2012/metodologia/>

7. Gure edukiak

Jarraian koadro bat azalduko dizuet, konparatzeko asmorik gabe, bi topaketetan landu ziren gaien buruzko ideia bat egiteko.

2012KO “VENIR AL SUR” TOPAKETAREN ARDATZ TEMATIKOAK	2015EKO “VENIR AL SUR” EKIMENAREN ARDATZ TEMATIKOAK
<p>Feminismoak eta feminismoen egungo subjektuak Latinoamerikan eta Kariben: Feminismoetako egungo subjektu politiko nagusiak gogoetara, elkarrizketara eta onespenera ekartzeko, baita Latinoamerikako eta Karibeko feminismoen galdeketa eta ekintzarako gune berrien adierazpen eta bizipenetara ekartzeko ere. Adibidez: Mugimendu lesbiko feministak, Feminismo heterodisidenteak, Trans Feminismoak eta Inter Feminismoak, Hegoaldeko feminismo alternatiboak: Teoria eta praxi feminista “alternatiboak”, ez-tradizionalak, gure hegoaldeetatik feminismoak berritzeko proposak.</p>	<p>Ardatz nagusia: Zergatik LesBiTransInterFeminismoa?</p> <p>Lorategi irekia edo gela propioa? Agian biak dira beharrezko, baina lorategi irekiaren alde egiten badugu zapalketaren toki ugariak eta erresistentziaren gune nagusiak jarri beharko ditugu zalantzan, zenbateraino da irekia?, nor iritsi daiteke horra? eta antzeko beste zenbait galdera eginez.</p> <p>Inor baztertzeko asmorik gabe onartzen dugu lorategi honetan sartzen garenak pribilegiatu batzuk garela, eta hain zuzen ere horregatik onartzen dugu gune hau gero eta jende gehiagoren esku jartzeko aukerei buruz eztabaidatzeko konpromisoa. Horregatik guztiagatik gonbidapen ireki bat egin nahi dugu, disidentziaz sortutako lorategi hau barne-hartzaile izan dadin eta ekintza kontrahegemonikoak erakartzen jarrai dezan, ezbairik gabe modu baztertzailan sortzen diren oztopo guztiak ezabatzeke.</p>

6 www.veniralsur.org webgunean eskuragarri daude edukiak

2012KO “VENIR AL SUR” TOPAKETAREN ARDATZ TEMATIKOAK	2015EKO “VENIR AL SUR” EKIMENAREN ARDATZ TEMATIKOAK
<p>Latinoamerikan eta Kariben lesbitransinter aktibismoa bultzatzeko estrategiak: non egiten ari diren esperientziak partekatu eta eztabaidatuko ditugun eta ekintza zehatzak, aktibismo modu berriak eta sor litezkeen aliantzak proposatuko ditugun. Feministen eta topaketan parte hartzen duten erakundeen arteko antolamendu afektibo, efektibo eta politikorako guneak irekiz, esate baterako honako hauekin zerikusia duten esperientziak abian jarritz: mikropolitikak, autogestioa, eraldaketarako mobilizazioa eta ekintza, artibismoak, desbinarizazioa, “Eremu publikoaren” degenerazioa, ziberfeminismoak eta abar.</p>	<p>Bigarren mailako ardatzak: Feminismoa, zertarako eta norentzat? Feminismoak eta feminismoen egungo subjektuak Latinoamerikan eta Kariben. Transfeminismoa eta lesbofeminismoa adierazpengune gisa. Elkarrengandik bereizten eta elkartzen gaituena. Zein da lesbofeminismoaren eta transfeminismoaren arteko elkargunea? [De]Kolonialtasuna eta sektorearteko ikuspuntua: begirada feminista bat zeharkatzen gaituzten zapalketen aurrean: klasea, arraza/etnia, generoa, adina, geopolitika, xenofobia eta abar. Nola gainditu feminismoa pribilegiogune batetik?</p>

2012KO “VENIR AL SUR” TOPAKETAREN ARDATZ TEMATIKOAK	2015EKO “VENIR AL SUR” EKIMENAREN ARDATZ TEMATIKOAK
<p>Gorputzak, askatasunak, plazerak eta subjektibitateak: Adibidez: Plazer-praktikak; abortu libre, seguru eta doakorako eskubidea; kontra-sexualitateak; genero-binarismoak apurtzea; edertasun kontrahegemonikoak; erotismoa eta autoerotismoa; Trans identitateen despatologizazioa; intersex pertsonen mutilazio genitalaren eta emakume lesbianen aurkako bortxaketa “zuzentzaileen” aurkako borroka; eta abar.</p>	<p>Gorputzak plazeretik eta displazeretik Zapalketa gorputzetan, nola bizi plazerez eta askatasunez gu izaten ere uzten ez digun sistema batean? Gure gorputzei begiratzeko modua aldatu behar dugu; plazeraren eta displazeraren begirada dikotomiko batetik modu kontrahegemonikoen plazera bizitzeko aukera berreskuratuko duen beste begirada batera.</p> <p>Gure artean eta gure gorputzentzat praktika agresiboak sortuz indarkeria sistematiko eta zapaltzailea dakarten eguneroko indarkeria eta zapalketei buruz hitz egitea; lodifobiari buruz hausnarketa egitea eta edertasun kontrahegemonikoei bide ematea; baina, aldi berean, femme fobia, butch fobia eta gure mugimenduetan nabari diren beste “normalizazio” modu batzuk agerian jartzea.</p> <p>Gure erresistentziei buruz eztabaidatzen jarraitu nahi dugu, genero-binarismoak apurtzeko, erotismoa eta autoerotismoa defendatzeko, Trans identitateen despatologizazioaren alde egiteko, intersex pertsonen mutilazio genitalaren eta emakume lesbianen aurkako bortxaketa “zuzentzaileen” aurka borroka egiteko, abortu libre, seguru eta doakorako eskubidea eta kontrasexualitateak aldarrikatzeko, eta abar.</p>

2012KO “VENIR AL SUR” TOPAKETAREN ARDATZ TEMATIKOAK	2015EKO “VENIR AL SUR” EKIMENAREN ARDATZ TEMATIKOAK
<p>Geopolitikak, toki-bizipenak eta erresistentzia sortzaileak: Gure herri, hiri eta herrialdeetako errealitate eta testuinguru sozial, politiko, ekonomiko, juridiko eta kulturelei buruzko hausnarketa eta ekintzak ezagutu, partekatu eta antolatzeko, eta hainbat interes, zapalketa eta bidegabekeriaren ondorio diren sistema horiei aurre egiteko eta sistema horiek eraldatzeko baliatzen ditugun erresistentzia sortzaileak aintzat hartu eta antolatzeko. Adibidez: LesBiTransInter ekintza feminista militarizazio-testuinguruetan, barne-gatazka armatuetan, neoliberalismoan, lesbofobian, transfobian, migrazioan edo behartutako desplazamenduetan eta abar. Hezkuntzarako, osasunerako, elikagaien segurtasunerako eta abortua legezatzeko eskubidearen aldeko borroka eta erresistentzia sortzaileak. Gorroto-krimenak erregulatu eta aintzat hartzeko edo genero-identitatea “legez” onartzeko legeak.</p>	<p>Apustu horizontala kolektibitatean eta harremanetan.</p> <p>Maitasunaren egungo moduak, erotikoak eta afektiboak, ahaidetasunezkoak eta pertsonen arteko harremanak oro har. Botere-harremanak gizarte-mugimenduen barruan, horizontaltasuna nola eraiki. Boterea eta hierarkizazioa, espezismoa begirada feminista batetik. Gure bikote-harremanetan, aktibismo-kolektiboetan, lan-eremuetan eta adiskidetasun-harremanetan sinbolikoki eta zehazki azaltzeaz gain feminismoak adieraztea ere uzten ez duen puntu itsuetan ere agertzen diren indarkeria motak izendatzea.</p>
<p>Harreman antipatriarkalak, de-generatuak: Adibidez: maitasunaren egungo moduak, erotikoak eta afektiboak, ahaidetasunezkoak, eta pertsonen arteko harremanak oro har. Botere-harremanak gizarte-mugimenduen barruan: arrazakeriak, genero-indarkeriak, adinagatiko diskriminazioa, klaseagatiko diskriminazioa, atxiloketa arbitrarioak eta abar.</p>	<p>Estrategiak: Nola eutsi eta nola [des]eraiki feminismitik?</p> <p>Nola pentsatu eta nola eraiki ekonomia, hezkuntza, etika eta komunikazio feministak? Gure borroka mekanismoei buruz hausnartzea eta kolektibizatzea, erresistentzia-estrategia sortzaileak, aktibismoak, autogestioa, esku-hartzeak eremu publikoan, performance feminista eta ekintza kolektibo zehatzak, aktibismo modu berriak eta sor litezkeen aliantzak proposatzeko mikropolitikak. Feministen eta Topaketan parte hartzen duten erakundeen arteko antolamendu afektibo, efektibo eta politikorako guneak irekitzea.</p>

8. Kalea, garrantzizko tokia

Topaketa hartzen duen hiriarekiko elkarreragina funtsezkoa da guretzat. Ez bakarrik kontuan hartzen badugu Asunciónen 2012an eta San Joséan 2015ean antolatu genituen martxek egundoko oihartzuna izan zutela bertako kaleetan, martxa horien harira etorri ziren beste hainbat ekintza ere azpimarratu beharko genituzke: graffittiak, antzezlanak plazetan, eta, hori gutxi balitz, gaitzespen-ekintzak (escracheak). Bi aipatuko ditut jarraian:

- Costa Rican “Coordi del Beso Diverso” elkarteak sortu zen, bikoteek elkarri musukatzeari ekin ziotenean gayak edo lesbianak diskriminatzen zituzten lokal komertzialen aurrean; hasieran bikote batzuk baino ez ziren, baina gero beste hainbat eta hainbat etorri ziren. “Venir al sur” ekimena aprobetxatuz, 2012. urtean, Coordi del Beso Diverso elkarteak antolatutako topaketan parte hartzen ari ziren 250 pertsonak “Britania” tabernaren aurrean egin zuten escrachea, heterosexualak ez diren maitasunezko adierazpenak debekatuta daudelako establezimendu horretan. Segurtasun-zaindarien eta tabernako jabeak berak ez zuten inoiz hainbeste jende ikusi atearen aurrean, danborrak joz eta elkarri musukatuz bideratutako protestan.
- San Joséko martxa Mexikoko enbaxadaren aurretik pasatzean, manifestari guztiok ozenki oihukatu genituen, banan-banan Ayotzinapako 43 ikasleen izenak.

9. Nor gara?

Lehen eta bigarren topaketa prestatzen aritu ziren erakundeak jaso dira zerrenda horretan; batzuk lehen topaketan egon ziren bakarrik, beste batzuk bigarrenean baino ez, eta beste batzuk bietan:

- Aireana, lesbianen eskubideen aldeko taldea, Paraguai
- Mujeres al Borde, Kolonbia
- Organizando Trans Diversidades, Txile
- Paila Marina, Txile
- Sentimos Diverso, Ekuador
- Ovejas Negras, Uruguai
- Desalambrando, Argentina
- Festival Anormales, Argentina
- Coordi del Beso Diverso, Costa Rica
- Colectiva por el Derecho a decidir, Costa Rica
- Mulabi, Costa Rica
- La Casa de los Colores, Nikaragua

- Las Reinas Chulas, Mexiko
- Colectiva Mujer y Salud, Dominikar Errepublika

Baina gehiagok ere parte hartu zuten.

10. Finantziazioa

Asunción hiriko lehen topaketak honako hauen babesa izan zuen: Mama Cash, Astraea, Lesbian Foundation for Justice, Global Found for Women, NBE Emakumeak - Paraguai, Nazio Batuen Biztanleria Fondoa (UNFPA-Paraguai).

Bigarrenak, berriz, Arcus Foundation, Astrea, UNFPA- Costa Rica, Fondo Centroamericano de Mujeres eta Hivos erakundeek babesa izan zuen.

11. Erronkak

- Jarrantzea.
- Antolatzaileentzako logistika gainditzea.
- “Especismo”, veganismo, vegetarianismoan sakontzea.
- Aurreikusi ez diren gauzak: cidh-rako bideoa eta beste gauza batzuk.

12. Egileen iritzia

Prozesuan parte hartu duten zenbaiten iritzia ere jaso nahi nituzke hemen, sinatzaileen baimenarekin.

Hona hemen antolatzaileen iritzi batzuk:

“Nik azpimarratuko nuke askotariko feminismoen topaketa dela, elikatu ahala eskualdeko feminismoentzat bideak urratzen eta aukerak zabaltzen ari den topaketa, sexu- eta genero-disidentzien esperientzia, hausnarketa, praktika politiko, afektibo, sortzaile eta korporaletatik abiatuta, eta gainera esango nuke ez dela “LGBT” topaketa ohiko bat, beste gune feministetan zokoratuta egon ohi diren eginbide alternatibo jakin batzuk proposatu eta lehenesten dituen neurrian, hala nola artea, plazera, esperientzia, praktika, diferentziak, aniztasunak, desadostasunak, maitasuna, komunitarioa, topaketaz jabe litezkeen andere handien ahots ofizial, berezi eta divoak sortzearen aurkako ahalegina. Espero dut kolektiboa eta maitasuna berriz ere nabarmentzea Mexikon, hegoaldera etortzearen aldeko prozesuan”. (Ana Lucía Ramírez, Mujeres al Borde- Kolonbia, 2016ko otsailaren 20a

“Niretzat garrantzitsuena da metodologia-mailan bake-ikuspegia, maitasun-ikuspegia edo dena delakoa nola aplikatu zen. Izan ere, gero ohartzen zara zaila dela esatea maitasunari lehentasuna ematen zaiola besterekin ulertzeko, autolaguntza-liburu merke baten mezua dirudi, baina benetan sinesten dut inklusioan, plazerean eta beste zenbait baliotan oinarritutako ikuspegia dela “Venir al sur” topaketaren benetako balioa. Hau da, funtsean, bakeari eta maitasunari lehentasuna ematea. Elkar-ulertzea bilatzen du duintasunaren defentsa ez duelako jada zalantzan jartzen, horretan adostasuna esan gabe doalako. Hippie doinua daukan honi emaiozu doinu feminista, horixe da nire iritzia.” (Ana Francis, Las Reinas Chulas, Mexiko, 2016ko otsailaren 20a).

“Ni onartu beharrean nago ikusmira estu samarra dudala, nerabezaro eta gaztaroko doktrinamendu marxistaren eraginez ziurrenik, eta nire ustez Ana Francisek esandakoari ekimenaren autogestioaren balioa erantsi behar zaio, baita, alde zurretik zehaztutako irizpideak erabilita pertsonak topaketatik baztertzeari uko egin izana ere. Defenda dezagun hormarik eta atetzarrik gabeko lorategi bat, eta etorri behar duela sentitzen duen oro etor dadila gurera. Lorategia denon artean eraikitzeke ahalegin nekeza defenda eta nabarmen dezagun, gure arteko distantzia guztiak gaituz . Eta argi eta garbi esan dezagun indarrean dagoen lankidetzaren ereduak, topaketa antolatu den herrialdea zein den aintzat hartuta, ez duela laguntzarik eman nahi, gizarte zibilaren erabakien kontu-hartzaile gisa jokatzuz; edonola ere, oztopoak gorabehera, gizarte zibil hori gai da bere kasa aurrera egiteko”. Valeria Rubino, Ovejas Negras, Uruguai, 2016ko otsailaren 22a).

“Urrats historikoa da niretzat! “Batzar” feminista bat genero-diskriminaziorik (transfobia) eta adin-diskriminaziorik gabekoa, bi zentzutan: zaharragoa izateagatik (edo “zis gizonaren” aurrepegia izateagatik jajaja) ez diskriminatzea batetik, eta botere bat ez dagoela sentitzea bestetik: “aktibismoan urte gehien daramatzanak hitz egin dezake, espazio guztia beretzat duela; aktibista gazteek, berriz, ez dute ez tokirik ez hitz egiteko aukerarik. Agresibitatearik gabeko gune seguru bat, errespetuzko gune bat. Hitzaldi, eztabaida eta konferentzia luzeak badaude, baina baita beste era bateko jarduerak ere, jaiak, poza nonahi, musika, antzerkia eta abar, “artibismoa eta plazera” bete-betean. Hainbat eta hainbat jardura daude programatuta eta, gauzak horrela, pertsona orok bertan nahi duena adierazteko aukera dauka, baita jendaurrean hitz egitean eroso sentitzen ez diren pertsonak ere. Familia handi baten parte izatearen sentimendua. Erabateko arrakasta, 3 eguneko zoriona!!! Antolakuntza? Bikaina! Autobusak, aire girotua, paraje ederrak, janaria, eta, gainera, hori guztia diskriminazio ekonomikorik gabe. Esan beharra daukat, gainera, skype bidezko bileretan prestakuntza-lanetan genbiltzala berdintasuna sentitu nuela, elkar maite genuen hainbat pertsona gune seguru bat eraikitzen ari ginela alegia, jarrera politiko jakin batzuetan oinarrituta, eta bide batez esango dut niretzat horixe dela zerbait lortzeko ezinbesteko oinarrietako bat. google doc metodologia egokia erabili genuen hori guztia lortzeko, pertsona guztiek bertan esku hartzeko, kritikatzeko, ekarpenak egi-

teko eta artistak hautatzeko aukera izan baitzuten... zerrenda luzea da benetan!!! Besarkadak maitasun handiz” (Stef, Festival Anormales, La Plata, Argentina, 2016ko otsailaren 29a).

“Asunciónen 10 egun zoragarri eman ondoren Bahiara iritsi ginen, nekatuta baina oso pozik aldi berean, topaketan ikusi, eraiki eta bizi izandako guztia gogoan. Beste behin ere topaketaren antolatzaileei eskerrak eman nahi dizkiet, prestakuntzarako, elkarrizketarako eta aukera anitzeko gune bat sortzeko gauza izan direlako. Poz handia izan da hainbeste jende desberdin, plural, berezi eta iraultzailerekin esperientzia, jakintza, ideiak eta maitasuna partekatzeke aukera eduki izana. Kantatuz eta dantzatuz hizkuntzaren, gorputzaren, desiraren, arauen kateak apurtzeko prest dagoen jendea, Latinoamerikan eta Kariben loratzen ari den LesBiTransInter feminismo uztartzailearen eraikuntzan aurrera egiten duen jendea. Zalantzarik gabe, “Venir al sur” ekimenak ikasteko aukera berezia eskaini digu. Asko ikasi nuen, bai kolektibo osoarekin, bai pertsonak banan-banan hartuta. Asunciónera iritsi nintzen Latinoamerika eta Brasilek elkarri bizkarra ematen ziotela sinetsita, baina itzuleran uste hori zalantzan jarri behar izan dut, eta argi dago “Venir al sur” ekimenak errealitate hori aldatu duela, brasildarrak prozesura ekarri dituen neurrian. Elkarrizketa horrek jarraipena izango duen itxaropenarekin itzuli naiz. “Venir al sur” topaketan parte hartu ondoren iruditzen zait brasildarrak eta latinoamerikarrak aurrez aurre, elkarren ondoan gaudela, elkarri lotuta, Lankideak garela uste dut orain”. (Eide Paiva-Liga Brasileiras das Lesbicas Bahia- Brasil, 2012ko azaroaren 12a).

“Trudi bat ematea nahi baduzu zera esango dizut, lan gehiegi izan zela oso emakume gutxiren artean egin beharrekoa; gauzak aurrera, topaketa gainean genuela, jendeak asko eman zuen eta primeran atera zen, baina horrek sakrifizio handia eskatu zuen gutxi batzuen aldetik. Hortaz, esan batetik gauzak primeran atera zirela, eremu publikoa eta Estatuaren eremua hartu genuela topaketa egiteko, negoziazio-ahaleginetan bikain aritu ginela lortu genuena lortzeko, baina esan, halaber, horrek kostu handiak izan zituela aktibismoaren aldetik” (Luz Paulina Torres, Coordi del Beso Diverso, Costa Rica, 2016ko martxoaren 10a).

“Nire ustez oraindik asko dago egiteko Latinoamerikak eta Karibek elkarlanean aritzeko bidean. Bestetik, ondo asko dakit guneak askori aukera ezin hobea eman zela feminismoa pentsatzeko eta feminismoan duen tokia berriz pentsatzeko. Urrun egon arren, parte-hartzaileen maitasunezko hainbat mezu jaso nituen”. (Margarita Salas, Costa Rica, 2016ko martxoaren 10a).

“Ni oso pozik nago azken buruan gauzak oso ondo atera zirelako, baina nik ere uste dut antolatzaileentzat azken hilabetea oso gogorra izan zela, eta zoratzeko modukoa topaketaren egunetan. Hortaz, jarduera arrakastatsua izan zela gogoratzen dut, eta harro nago topaketaren zati handienez parte-hartzaileak ongi aritu zirela gogoratzen dudanean, bidean poliki-poliki konpondu ziren arazo txiki batzuk alde batera utzita. Gainera, aukera izan nuen hainbat pertsona eta pertsona horiek aurrera daramatzaten borrokak hurbil-hurbiletik ezagutzeko; horri esker, eskualdean egiten ari diren lanei buruz dudak ikuspegia aberastu dut, eta pozik nago

teoria tradizional askoren moldeak urratzen dituen jarduera batean parte hartzeko aukera izan nuelako. Topaketaren irudiei buruz pentsatzean, hartu genituen argazkiak datozkit gogora, baita talde-lanak, osoko bilkurak eta jarduerak ere”. (Michelle Jones, Costa Rica, 2016ko martxoaren 10a).

GARAPENERAKO ESTRATEGIA POSITIBOEN XI. JARDUNALDIAK

Eredu nagusiari aurre egitea
sexu eta genero
dibertsitatearen bidez

